


ogi gogorrari hagin zorrotza



barrenet 6. ikastunitatea

2. maila

irakaslearena

400 pta.

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:	Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Kudeaketa:	Joanba Bergara (HABEko Prestakuntza arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak:	Begoña Martinez (HABEko teknikaria) Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak:	Anabel Alegria (Leioako Udal Euskaltegia) Jon Irigoras (HABEko teknikaria) Joxe Manuel Goenaga (Santurtziko Udal Euskaltegia)
Errealizazio didaktikoa:	Esther Isasa (HABEko teknikaria)

© HABE 1999. ISBN 84-86968-75-5

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkie Enkarterrietako, Leioa eta Santurtziko Udal Euskaltegi eta Udalei materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duten borondateagatik.

Halaber esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua eta maketazioa: Tita Lorenz eta Marisa Mantxola • Marrazkiak: Marisa Mantxola

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Elhuyar aldizkaria:

Arotzena Otxotorena, G. 1998 Aledun labore, zitu edo zerealak. In Elhuyar, 128: 32-35. orr.

Arotzena Otxotorena, Gerarta Iñaki: ikastunitatea ilustratzeko argazkiak.

og gogorrari hagin zorrotza

barrenet 6. ikastunitatea

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

2. maila

irakaslearena

Hitzaurrea

Mende berriaren atarian, helduen euskalduntzearen berrikuntzaren aldeko erronkaren aurrean, HABEk kurrikulu-proiektua jarri du abian eta bere garapenerako hainbat pausu ematen saiatu da euskaltegiekin lankidetzan.

Berrikuntza kurrikularrak aldaketa sakona eskatzen du, hizkuntzaren ikas/irakas prozesuen bai helburu, eduki eta metodologiaren oinarriko balore eta printzipioetan, bai ebaluazio sisteman.

Badakigu eguneroko jardunari eragiten dioten aldaketek, egonezinak, zalantzak sortzen dituela. Urte askotako jardunak –eta ez jardun okerrak, bai baitakigu urte hauetan egindako ibilbidea eta esfortzua euskalduntze-alfabetatze arloan ez dela makala izan– errotu dituzte irakasleengan uste eta jardun didaktiko jakin batzuk.

Kurrikulu berrikuntzak dakarren aldaketa sustatzeko ez da, beraz, aski teoria berriak hotz-hotzean zabaltzea. Beharrezkoa izango da irakasleei, ahalik eta era zabalenean, jardura didaktiko berriak azaltzea, eta gelako benetako praktikara hurbiltzea. Beharrezkoa baita ere, hizkuntza ikas/irakaskuntzaren oinarri eta printzipioetatik eguneroko jardunerako jauzia errazteko zubia eskaintzea.

Eta horixe izan nahi dute HABEk aurkezten dituen ikasmaterial hauek; teoria eta praktikaren arteko zubia, kurrikuluaren mezua gauzatzeko aukera zehatza eta mezu horretara iristeko bitartekoa.

Material hauek diseinatzerakoan kurrikuluak bideratzen dituen eredu metodologikoen artean aukera bat egin da. Ez da, noski, aukera posible bakarra, baina bai, asmoz behintzat, eredu edo bidelagun, irakasleek beraiek euren materiala antolatu ahal izateko bidea erakutsi nahi dutenak.

HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikuluari (HEOK) dagozkion hiru mailatarako ikastunitateak burutu ditu.

Eskura duzun unitatea Barrenet sailekoa duzu. Barrenet 2. mailarako ikastunitatek osatzen dute; beren helburua, berriz, hirugarren mailarako hazia ereitea izango da, oinarriak ezartzea. Lau trebetasunen garapen integratua lantzerako datoz, diskurtsoaren plangintza-estrategiak jorratuz.

Ikastunitate hauek ez dute ikasprozesu osoari dagokion ibilbidea betetzen, uste baitugu irakasleak aplikatzaile huts eta zurrun ez, baina erabiltzaile zuhur, zentzudun eta printzipiodun izanik, zentzu kritikoz, jakingo dutela beren materialak antolatzen, eguneroko errealitateari eta beharrei erantzunez.

Jokin Azkue Arrastoa
HABEko Zuzendari Nagusia



AURKIBIDEA

1. Sarrera

- | | |
|---|---|
| 1. Irakaslearentzako oharrak | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |
| 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak | 8 |

2. Atazak

- | | |
|---|----|
| A Ataza: Jakirik onena, ezagutzen dena | 9 |
| B Ataza: Zerealak eta zibilizazioa | 12 |
| C Ataza: Elikagaiak eta zerealen abantailak | 16 |
| D Ataza: Ogi gogorrari hagin zorrotza | 20 |

3. Eranskinak

- | | |
|--------------------|----|
| 1. Bideo-pasarteak | 23 |
|--------------------|----|

4. Material osagarriak

- | | |
|---|----|
| A Ataza: Jaikirik onena, ezagutzen dena | |
| 1. Talo-zopak | 34 |
| C Ataza: Elikagaiak eta zerealen abantailak | |
| 2. Aledun, labore, zitu edo zerealak | 40 |
| 3. Lurrean ari | 44 |

Zerealak
hizpide hartuta, ikasleek
azalpenezko testu bat sortu
beharko dute ikastunitate honetako
D atazan. Horretarako, ikastunitatean
zehar zenbait laguntza eta suspergarri
eskainiko dizkiegu: ereduak proposatu,
testu-mota horren ezaugarriak aztertu,
produkzio eta planifikazio-estrategiak
garatu, ebaluaziorako irizpideak
eman, etab.

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Zerealak

Ikastunitate hau osatzen duten ataza guztiak gai berberaren bueltan dabilta: zerealak eta gizakiaren elikadura. Batzuetan ikasleak berak izango dira informazio-iturri nagusia, euren esperientzia eta ezagutza kontuan hartuta (A eta D atazetan) eta, beste batzuetan, ahozko nahiz idatzizko testuak erabiliko ditugu bidelagun, ezezagunagoak diren beste zenbait kontu argitara ekartzeko (A, B, eta C atazetan).

Azalpena

Ikastunitatean azalpenezko testuak, ahozkoak eta idatzizkoak, agertuko dira, bai input gisa (ikasleek mota horretako testuen gainean egingo dute lan), eta bai output gisa (mota horretako testuak sortu beharko dituzte). Horren harira, testu-mota horren gaineko gogoeta teoriko batzuk egingo dira, eta zenbait ezaugarri tipiko (adibideak, birformulazioak, definizioak...) modu fokalizatuan aztertu ere bai.

Ikas-estrategiak

Berebiziko garrantzia hartuko dute azalpenezko testuaren planifikaziorako estrategiek: ideia nagusiak erabiltzea testua egituratu eta antolatzeko, ideia nagusi horien hurrenkera edo ibilbidea aurreikustea, hitz gakoak erabiltzea ideiak formulatu eta gogoratu ahal izateko, etab.

Hiztegia

Hiztegiaren arloan ere badago ekarpenik: ikastunitatean zehar agertutako hitz berri edo ezezagunak ikasteko estrategia bat proposatuko diegu ikasleei: hitzak irudiekin lotzea. Amaieran, estrategia horren eraginkortasuna baloratuko dugu, gogoeta gidatu baten bidez.

Autonomia

Ikastunitateko lan-proposamen gehienak ikaslearengan ardaztuta daude, eta haren autonomia eta kontzientzia sendotu nahi dituzte: ikas-estrategien lanketa kontzientea, autoebaluazioa, etab.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena (8. or.)

A. JAKIRIK ONENA, EZAGUTZEN DENA

- Elikaduraren oreka
- Lehiaketa gastronomikoa Barreneten
- Zenbat dakigu zerealei buruz? (9. or. irak. lib.) (8. or. ik. lib.)

ENTZ/MINTZ

B. ZEREALAK ETA ZIBILIZAZIOA

- Testuko ideia nagusiak
- Ideia nagusien antolaketa
- Hiztegia: hitzak irudiekin lotu
- Azalpenezko testuen ezaugarriak (12. or. irak. lib.) (15. or. ik. lib.)

IRAK

O
S
A
G
A
R
R
I
A
K

TALO-ZOPAK

- Ereduzko testu bat irakurri eta aztertu.
- Birformulazioak azalpenezko testuan; zertarako eta nola
- Azalpenezko testu bat idatzi (34. or. irak. lib.)

IDAZ

ALEDUN, LABORE, ZITU EDO ZEREALAK

- Zerealen gaia biribildu entzumen eta irakurmenaren bidez.
- Autonomiara sustatzeko teknika (40. or. irak. lib.)

ENTZ/IRAK

LURREAN ARI

- Definizioak azalpenezko testuan
- Hiztegia: irudiak eta definizioak
- Hilabeteen izenak (44. or. irak. lib.)

HIZT

1. DASTATU LITERATURA

- Behi euskaldun baten memoriak (33. or. ik. lib.)

2. HIZTEGIA ETA OROIMENA

- Hitzak gogoratu
- Oroimenean eragina duten faktoreak aztatu (42. or. ik. lib.)

C. ELIKAGAIK ETA ZEREALEN ABANTAILAK

- Ideia nagusiak aztertu eta berreraiki
- Hitz gakoak erabili ideia nagusiak berreraikitzeko.
- Adibideak azalpenezko testuan: zertarako eta nola
- Ahozko azalpenaren eredia (16. or. irak. lib.) (23. or. ik. lib.)

ENTZ/IDAZ

D. OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA

- Ogi-motak nola izendatu
- Ahozko azalpenaren planifikazioa: ideia nagusiak, ibilbidea, hitz gakoak
- Ogi-mota baten ahozko azalpenak egin
- Ahozko azalpenen ebaluazioa
- Ogi-dastaketa lagunartean (20. or. irak. lib.) (27. or. ik. lib.)

MINTZ

IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA

(31.or. ik. lib.)

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

- Ogi-mota jakin baten ahozko azalpen laburra egitea, aurretik berbaldia planifikatuz (ibilbidea, hitz gakoak) eta, entzuleriaren ezagutza-mailara hurbiltzeko, behar beste argibide-eta emanez.

LEXIKOA

- Nekazaritzaren eta laboreen inguruko hiztegia
- Ogi-motak nola izendatu

MINTZAGAIAK

- Laboreak eta zibilizazioa
- Elikagaiak eta laboreen abantailak

ELKARRERAGINA

- Elkarri lagunduz, bideo-pasarte baten ulerkuntzan sakontzea (A)
- Inkesta bateko puntuak eztabaidatu eta erantzun bat adostea (A)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Testuaren edukia ideia nagusitan laburbiltzea (B)
- Testuinguruaz baliatuz, hiztegi espezifikokoaren esanahia ulertzea (B)
- Azalpenezko testuen zenbait ezaugarri buruzko gogoeta egitea (B)
- Azalpenezko testu laburra ahoz sortzea, aurretik ideiak antolatuz (D)
- Hitzaldi bateko ideia nagusiak berreraikitzea, hitz gako batetik abiatuz (C)
- Ahozko azalpena hitz gakoen bidez bideratzea (C)

GRAMATIKA ETADISKURTSOA

- Testuaren barne-koherentziari erreparatzea (B)
- Azalpenezko testuetan adibideek, definizioek, birformulazioek... dituzten funtzioak identifikatzea (B/C)
- Adibideak adierazteko hizkuntz baliabideak aztertzea (C)

ATAZA: JAKIRIK ONENA, EZAGUTZEN DENA 145'-165'

Helburuak:

- Nork bere elikadura-ohituren berri ematea modu informalean.
- Jaki eta janari-mota batzuen euskarazko izenak ikastea.
- Bideo-pasarte bat ulertzea elkarri lagunduz eta inferentziak eginez.
- Zerealei buruz duten aurrezagutza plazaratzea.

Zertan den:

- Ikastunitatearen lehenengo ataza honen helburuak dira gaiaren aurkezpena egitea eta ondorengo atazetarako jakin-mina eta interesa piztea. Hasteko, dieta orekatuaren triangeluaren laguntzarekin ikasleek euren elikadura aztertu beharko dute, zein alderdi on eta txar dituen, zer egin litekeen hobetzeko, etab. Jarraian, Barreneteko lagunak Zerealaren nazioarteko egunean antolatutako lehiaketa gastronomiko batean parte hartzen ikusiko ditugu. Bideo-pasartearen ulerkuntza inferentzi-puntu bat eskatzen duten galdera batzuekin bideratuko dugu. Azkenik, inkesta bati erantzun beharko diote, zerealen gainean duten aurrezagutza azaldu eta eztabaidatuz.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: dieta orekatuaren triangelua aztertu

- Hasteko, esaeizu ikasleei irakurtzeko euren liburuko sarrera-testua. Aurrera egin aurretik, komenta itzazue, labur-labur eta denon artean, testu horretako ideiak. Hizpidea eman lezaketen puntu edo galderak honako hauek dituzu, besteak beste: (5-10')
 1. Egia al da gizaki modernoak kontu horrekin horren kezkatua dabilela?
 2. Gauza bera al da osasuntsu egotea eta lerdin egotea? Zergatik?
 3. Egia al da elikadura dela osasunaren urrezko giltza? Zein beste faktore dira garrantzitsuak?
 4. Nahikoa informazio ba al dauka hiritar arruntak elikaduraren gainean?
 5. Izan al zarete inoiz dietista baten kontsultan? Zerbait lortu al zenuten?
- Esaeizu ikasleei aztertzeko Bostongo Unibertsitatean prestatu duten triangelua. Dieta orekatuaren ezaugarriak biltzen ditu triangelu horrek. Horren arabera, elikagai batzuk egunero jan behar dira, beste batzuk astean behin edo bitan, eta, azkenik, badira hilean noizbehinka bakarrik kontsumitu beharrekoak. Triangeluko daturen bat ulertu ezinik badabiltza, galde diezaiotela ondoan duten ikaskideari, eta, horrela ere ezin badira moldatu, zure esku dago behar beste argibide ematea. (5')

Ataza: nork bere triangelua azaldu

- Ikasle bakoitzak eredu izan duten antzeko beste bat egingo du bere eguneroko dietaren ezaugarriak bilduz. Ezinbestean, triangelu horrek ere bederatzi maila izango ditu (ereduarenak berberak) baina, seguruenez, beste modu batera mailakatuak. (5')

! Oharra: Nahikoa arin egin behar dute triangelua; helburua gutxi gorabeherako errepresentazio bat osatzea da, norberaren elikaduraren ezaugarri nabarmenenak agerian utziko dituenak.

- Hirunaka bilduta, prestatu dituzten triangeluak erakutsi, azaldu eta komentatuko dituzte modu informalean. Komentario hori bideratzeko galdera-sorta labur bat proposatzen zaie euren liburuan. (10'-15')

Atazostea: norberaren dietako janari garrantzitsuenak adierazi

- Amaitzeko, ikasle bakoitzak bederatzi jaki-tipo horietako bakoitzaren parean bere otorduetan garrantzitsuenak den janariaren izena ipiniko du. Lana errazteko, jaki-tipoek barnebiltzen dituzten zenbait janari arruntak izenak bildu ditugu biribil banatan. (5')
- Hirunaka bilduta, ikasleek modu informalean komentatuko dituzte euren taulak. Azal dezatela labur-labur zenbatero, noiz eta nola jaten dituzten janari horiek, eta baita gustuko dituzten ala ez. (10')



2

Atazaurrea: galderak irakurri

- Ikaslearen liburuko sarrera-testuaren laguntzarekin, egin ezazu atazaren aurkezpena: Zerealaren nazioarteko egunean Internetek mundu-mailan antolatutako lehiaketa gastronomiko batean hartu dute parte Barreneteko lagunek. Bideo-pasartean partehartze horren gorabeherak ikusi ahal izango dituzte. (3')
- Bideo-pasartea ikus-entzun aurretik, bil daitezela hirunaka eta bana ditzatela euren artean bideo-pasarteko hiru pertsonaia horiei buruzko galdera-sortak. Ikasle bakoitzak berari dagokion zatiaz arduratu beharko du, batez ere: bost galderak irakurri, ondo aztertu, eta bideo-ikustaldian galdera horientzako erantzunak bilatu. (3')

Ataza: bideo-pasartea ikus-entzun

- 1. bideo-pasartea ikus-entzuten duen bitartean, ikasle bakoitzak bere bost galderen erantzunak bilatu behar ditu. Entzun ahala, apunte txikiren bat har lezake, edota amaitu arte itxaron. (8')
- Ikasle bakoitzak bere bost galderari erantzunak idatziz. (5')

Atazaostea: jasotako informazioa azaldu

- Hirunaka bilduta, ikasleek aurreko puntuan jaso dituzten datuak azaldu, alderatu eta eztabaidatu behar dituzte. Ea ados jarri eta bideo-pasartea bere osotasunean ulertzeko gai diren. (10')

Feedbacka

- Komenta itzazue denon artean bideo-pasartearen ulerkuntzan sortu diren zalantzak eta arazoak. Birpasa itzazue banan-banan hamabost galderak eta argitu ezazue zer gertatu den bideo-pasartean. (10'-15')
- Egoki iritziz gero, ipini berriro bideo-pasartea. Ea oztopo/zalantza guztiak argitzen diren, behin betiko. (8')

3

Atazaurrea: inkestaren aurkezpena

- Ikaslearen liburuko sarrera-testua irakurri behar dute ikasleek. Testu horretan azaltzen dira ondoren bete behar duten inkestaren nondik norakoak. (3')

Ataza: inkestari erantzun

- Hirunaka bilduta, ikasleak inkestako hamar galderari erantzuten saiatuko dira. Zerealen gainean dakitena plazaratu eta eztabaidatu beharko dute, puntu guztiei erantzun egokia emateko. (10'-15')

Feedbacka

- Komenta itzazue denon artean inkestako puntu guztiak. Eztabaida itzazue talde ezberdinek emandako erantzunak. (10')



ZU ERE ZEREALZALE kanpaina

Nik.....-k, ondorengo galdetegiaren bidez zerealen gainean dudak jakinduria erakutsi nahi dut kofradia horretako bazkide gisa onar nazazuen. Tamalez, zuzena ez den erantzunen bat emango banu, zinezko konpromezua hartzen dut aurrerantzean ere ikasten jarraitzeko, harik eta egunen batean elkarte horretan onartua izateko nahikoa merezimendu biltzen dudak arte.

GALDETEGIA:

- Ondorengo zerrendako hitz horietako bat ez da "zereal" hitzaren sinonimoa. Zein? Hona hemen zerrenda:
 - Aledun.
 - Labore.
 - Opil.**
- Hona hemen hiru edari ezagunen izenak: ARDOA, SAGARDOA ETA GARAGARDOA. Ze ezaugarri komun dute?
 - Hirurak direla ardoak.
 - Hirurek zerealen bat dutela osagaien artean.
 - Hirurak edari alkoholikoak direla.**
- Zein dira gaur egun kosmetikan gehien erabiltzen diren bi zerealak?
 - Garia eta oloa.**
 - Arroza eta zekalea.
 - Garagarra eta artoa.
- Ondorengo zerrendako zein hitz ote da arrotza?
 - Takoa.
 - Gofioa.
 - Talao.
 - Pizza. (besteak artirinez egiten dira)**
- Dilistak ez omen dira zerealak. Zergatik?
 - Ez direlako ale irintsuak.**
 - Egosita jan behar direlako.
 - Forma biribila dutelako.
- Ondorengo zerrendako eraikin horietako batek ez du inolako zerikusirik zerealekin. Zeinek?
 - Garaia.
 - Korta.**
 - Errota.
- Gerra-garaian zergatik jaten zuten ogi beltza?
 - Ogia etxean egiten zutelako.
 - Ez zelako besterik esagutzen.
 - Ez zegoelako irin birfundirik.**
- Ondorengo ekintzetatik zein da zorigaitzaren seinale?
 - Ogia eskuekin puskatzea.
 - Ogia lurrera erortzea.
 - Ogia buruz behera ipintzea.**
- Zergatik da hain garestia hojaldrea?
 - Irin-mota berezi batez egiten delako.
 - Orea egitea oso lan nekoso delako.**
 - Intxaur-hautsa nahasten zaiolako.
- Zein dira mundu zabalean gehien ekoizten diren bi zerealak?
 - Artoa eta arroza.
 - Arroza eta garia.**
 - Garia eta artoa.

Zerealezaleen Euskal Kofradia
Garagartza kalea 15, Bilbo.



IRAK.LIB. 4.1.

Material osagarrietako Talo-zopak ariketan eredu zko testu batetik abiatuta, birformulazioen bidez berridaztea proposatzen zaie ikasleei eta horretarako zerealekin egindako plater edo jaki bat aurkeztu beharko dute.

ATAZA: ZEREALAK ETA ZIBILIZAZIOA 120'

Helburuak:

- Testuaren edukia bospasei ideia nagusitan laburbiltzea.
- Testuaren barne-koherentziari erreparatzea.
- Hiztegia lantzea, hitzak irudiekin lotuz.
- Azalpenezko testuen zenbait ezaugarri buruzko gogoeta egitea.

Zertan den:

- Testu hau aproposa da gaiarekiko interesa sortzeko eta ondorengo atazetarako sarrera gisa. Proposatutako lanketan hainbat kontu uztartzen saiatu gara: alde batetik, testuaren ulerkuntza (ideia nagusiak atera) eta barne-koherentziaren azterketa; bestetik, hiztegiaren lanketa (hitza irudiekin lotu) eta, azkenik, azalpenezko testuen gaineko gogoeta gidatua. Kontuan hartu beharrekoa da, bestalde, ataza honetan abian jarritako hainbat estrategiak (ideia nagusiak ateratzea, hiztegia ikasteko lotura bisualak egitea, etab.) jarraipena izango dutela hurrengo atazetan ere. Ez da, beraz, erabat bukatuta edo itxita geratuko den lanketa.

PROZEDURA:



IRAK.LIB. 4.2.

Ikasleek zerealen inguruan interes handia badute, material osagarria 4.2. ariketa duzu. Bertan teknika bat proposatzen da, entzuketa eta irakurketa konbinatuz, ulermena lantzeko. Komenigarria da ariketaren lehenengo bi puntuak ikasgelan egitea, zure laguntza izan dezaten.

Ariketa hau ataza honen hasieran edota bukaeran egin daiteke. Zuk aukeratu, ikasleak entzule edota irakurle onak direnen arabera.

1

Atazaurrea

- Hasteko, egin ezazu irakurri beharreko testuaren aurkezpen labur bat. Besteak beste, honako puntuok komenta ditzakezu: Elhuyar aldizkarian argitaratua dela. Bidenabar, aldizkari horren berri eman dezakezu (nolakoa den, zenbatero argitaratzen duten, non eros daitekeen, etab.)
Testuan jorratuko den gaia labur-labur aipatu, xehetasunetan sartu gabe.
Testua ulertzea oztopa dezaketen faktoreak aipatu: hiztegiaren zehaztasuna eta aurrezagutza-maila, batez ere.
Irakurri beharreko testua ez da argitaratutako artikulu osoa, bi pasarte aukeratu baizik. (5')
- Lehenengo irakurketa. Irakurketa hau modu estentsiboan egingo dute: testua orokorrean ulertzen saiatuko dira, hitz ezezagunei erreparatu gabe. (5')

Ataza: testuko ideia nagusiak atera

- Bigarren irakurketa. Irakurketa honen helburua azalpenezko testu horretan garrantzitsuenak diren ideiak ateratzea izango da. Helburu hori lortzeko, irakurketa nahikoa intentsiboa egin beharko dute, analitikoagoa eta pausatua. (15')

! Oharra: Kontuan izan ideia nagusiak ez direla derrigorrez sei - gehiago edo gutxiago ere izan litezke-, baina kopuru horretatik gehiegi aldendu gabe. Ideiak ateratzerakoan, bestalde, zenbaitetan aski izan liteke testuko esaldiak dauden daudenean idaztea, eta beste batzuetan nolabaiteko birformulazioa eskatuko dute; ikasleak erabaki beharko du kasu bakoitzean nola jokatu.



ZUZENKETA-ORRIA

Honako hauek izan litezke, gutxi gorabehera, testuko ideia nagusiak:


1. Historiako zibilizazio handi orok, adibidez, Egiptokoak, Greziakoak edo Erromakoak, zereal-motaren batean izan du oinarria.
2. Gizarte ehiztari eta biltzailearen eredia gainditzeko, behar-beharrezkoa izan zen aledunen langintza.
3. Gaur egun ere zituak dira elikagai-erreserben ardatza eta edozein herrialdeko aberastasunaren neurria.
4. Azkenengo mendean zerealen produkzioa sei halakotu egin da.
5. Laboreek bi erabilera nagusi dituzte gaur egun: giza elikadurarako eta animalien elikadurarako.
6. Gaur egungo kontserbazio eta garraibideei esker gure elikadura ikaragarri hobetu da.

Prestaketa

- Hirunaka bilduta, ikasleek aurreko puntuan egindako lana alderatu eta komentatuko dute, lehendabizi. Ondoren, hiruren artean, gaiaren ibilbidea zein izan den eztabaidatu eta erabakiko dute, ibilbidearen eskema grafikoa osatuz. (10')

Azalpena eta feedbacka

- Hirukoteetako bati, euren ibilbide-proposamena besteen aurrean azaltzeko eskatuko diegu. Proposamen honen gainean nahi adina ohar eta kritika egiteko aukera emango diegu beste ikasleei. Horrela, prozeduraren une honetan testuaren ulerkuntzaren feedbacka jasoko dute ikasleek. (5-10')



Gramatika eta diskurtsoa: testuaren koherentzia

- Azkenik, aurreko puntuko hirukoteetara itzulita, gogoetarako galderi erantzuten saiatuko dira. Galdera horiek, bistan denez, testuaren koherentzia aztertzea eta horretaz gogoeta egitea dute helburu. (5')
- Guztion artean komentatu eta eztabaidatu lau puntuak. (10')

Aukeran: etxerako lana

- Esaiezu ikasleei idatz dezatela testuaren laburpena (bospasei lerrokoa). Laburpen hori egiteko aski lukete ideia nagusiak hartu eta lotzearekin. Lotura horiek tajuz nola egin, hor dago ariketaren gakoa.



2

Atazaurrea: hitzak kontestuan aztertu

- Esaiezu ikasleei biribilean sartuta dauden hitz horiei erreparatzeko. Hitzok irakurri berria duten testutik atereak dira; batzuk ezagunak izango dituzte, beste batzuk ez oso ezagunak, baina kontestuan ulertzeko modukoak dira, eta beste batzuk ulertezinak zeharo. Azter ditzatela testuinguruan (lerroaren erreferentzia ematen diegu testuan errazago aurki ditzaten) eta saia daitezela ahalik eta ondoen ulertzen. (5-10')

Ataza: hitzak irudi batekin lotu

- Aurrekoarekin lotuta, ikasleek ulertu uste dituzten hitzak lau argazki horietakoren batekin lotu beharko dituzte. Horrela, ikasle bakoitzak bere sailkapena egingo du. Sailkapen horrek ez du zertan beste ikaskide batek egindakoaren berdina izanik. Hori bai, sailkapena modu batera edo bestera egiteko arrazoia garbi ikusi behar dute, hau da, zein erlazio-mota ezarri duten hitzaren eta argazkiaren artean. (10-15')

Feedbacka

- Bil daitezela hiruak eta aldera ditzatela egindako lanak, hitzen ulerkuntzan izan dituzten zalantza eta hutsuneak komentatuz, eta egindako sailkapenaren zergatia azalduz. (10-15')
- Amaitzeko, galdeiezu ea hitz guztien esanahia atera ahal izan duten. Erantzuna ezezkoa balitz, azal iezaiezu zeuk, beti ere testuinguruari erreferentzia eginez. (5')

! Oharra: Konturatuko zinenez, argazki bakoitzaren azpian tarte handi samarra utzi dugu. Honen arrazoia oso sinplea da: hiztegi-ariketa hau ez da bukatutzat eman behar. Ikastunitatean zehar agertu diren eta agertuko diren beste hitz berri batzuk ere (zerealen eremu semantikokoak, jakina) zerrenda edo sailkapen horretan biltzen saiatu beharko dute ikasleek. Geroago, 4.2 Hiztegia eta oroimena ariketan (ikus ikaslearen liburuko material osagarrietan) ariketa horretara itzuli eta horren balorazioa egitea proposatuko diegu. Bestalde, erreferentzia izenburupeko zutabea hitza zein egoeratan atera den gogoratzeko erabiliko dute; batzuetan testuaren izenburua jarri beharko dute, beste batzuetan, beharbada, zein ikasleren ahotan entzun duten, etab.

3

Atazaurrea: galdetegiari isilean erantzun

- Lehendabizi ikasleak, nor bere aldetik ikaslearen liburuko galdetegiko galderatxo horiei erantzuten saiatuko dira. Aski dute ezer idatzi gabe erantzuna pentsatzea. Garbi dago ikasle bakoitzak bere esperientzian oinarrituta erantzun behar diela galdera hauei. Galderok azalpenezko testuen zenbait ezaugarriren azterketa bideratzeko pentsatuta daude. (5')

Ataza: azalpenezko testuen ezaugarriak atera

- Bil itzazu hiru laguneko taldetxotan eta komenta ditzatela bururatu zaizkien erantzunak. (5-10')
- Bukatzeko, esaiezu galdetegia birpasatzeko eta saiatzeko azalpenezko testu on batek behar dituen bi ezaugarri ateratzen. Bi ezaugarri horiek idatziz jasoko dituzte. (5')

Feedbacka

- Guztion artean, irakasle on gidaritzapean, atera dituzten ezaugarri guztiak komentatu eta eztabaidatuko dira, eta gutxieneko adostasun bat lortzean, arbelean jasoko dira. (10'-15')

ZUZENKETA-ORRIA



Gogoeta gidatu honen bidez ikasleengandik ateratzea espero ditugun ezaugarriak hauek dira, batez ere.

1. Azalpenezko testu on batek zerbait eman behar dio hartzaileari, hau da, lehendik zekiena baino pixka bat harantzago joaten lagundu.
2. Aurrekoarekin lotuta, azalpenezko testuak balizko irakurlearen ezagutza-mailara hurbildu behar du, bestela, ezingo luke ulertu-eta.
3. Azalpenezko testuetan usteek eta iritziek leku gutxi dute. Horrelako testuetan egia unibertsalak, hots, mundu guztiak onartutakoak edota zientziak ziurtatuak, agertuko dira.
4. Aurrekoarekin lotuta, objektiboa izan behar du testu-mota honek. Argibide estadistikoak, adituen testigantzak eta abar, oso baliabide onak dira kutsu objektibo hori indartzeko.
5. Azalpenezko testuak argia izan behar du, hau da, kontraesanik gabea eta interpretazio-arazorik sortzen ez duena.

! **Oharra:** Azkenengo puntuan ateratako ezaugarriak ondorengo atazetan ere oso kontuan hartu beharko dituzte ikasleek, eurei azalpenezko testuak sortzeko eskatuko diegunean. Horregatik, ikasleek aportazioa guk uste baino pobregoa geratuko balitz, irakasleak zuzenketa-orrian proposatzen diren ezaugarri horietara bideratu beharko luke ikasleen arreta.



ATAZA: ELIKAGAIAK ETA ZEREALEN ABANTAILAK 150'-170'

Helburuak:

- Hitzaldi batean adibideek duten funtzioaz ohartaraztea.
- Adibideak adierazteko hizkuntz baliabideak aztertzea.
- Hitzaldi bateko ideia nagusiak berreraikitzea, hitz gako batetik abiatuta.

Zertan den:

- Ataza honetan, ahozko azalpen baten erdua eskaini nahi diegu ikasleei, azkenengo atazarako balioko dielakoan. Azalpen/hitzalditxo hori Gerarta Arotzenak, B atazako testuaren egileak, egingo du cyber-tabernan eta aipatuko dituen kontuak nahikoa lotuta daude aurreko bi atazetan azaldutakoarekin. Entzute aurreko fasean, hitzaldiko ideia nagusiak aurkeztuko dizkiegu ikasleei eta horiek manipulatu eta berreraikitze pare bat jarduera proposatu. Entzute bitarteko fasean, hitzaldian ematen diren argibide eta adibideei erreparatuko diete, batez ere. Eta, azkenik, adibideak emateko erabiltzen diren partikula edo lotura-hitzak aztertuko dituzte.

PROZEDURA:

1

Ataza: erdibitutako esaldiak berregin

- Ikasleek, nor bere aldetik, erdibitutako bederatzi esaldi horiek berriz osatzen saiatu beharko dute. Horretarako, aski dute esaldiaren ezker aldeko parentesietan dagokion hizkia ipintzearekin. Eginkizuna arrakastaz burutzeko era askotako arrasto edo laguntzak erabil ditzakete: esaldiaren egitura sintaktikoa, esaldiaren barne-koherentzia semantikoa, pista estralinguistikoa (esaldi bakoitzak zati bat baino ez du azpimarratuta). (10')

Feedbacka

- Klaseko ikaskide guztien artean, irakaslea gidari dela, aurreko puntuaren zuzenketa egingo da. Anima itzazu ikasleak euren zalantzak adieraztera. Azal dezatela zein arrastotan oinarritu diren esaldiak modu batean edo bestean osatzeko. (10')
- Zuzendu ahala, bederatzi esaldiak ideia nagusiak eta adibideak izeneko orrian berridatziko dituzte, txukun-txukun. Berridazte horrek, piska bat aurrerago egin beharko duten berreraikitze-ariketa errazagotuko die, seguruenik. (10')

Atazostea: adibideak prestatu

- Ikasleek, binaka jarrita, bederatzi esaldiak birpasatuko dituzte, eta horietako hiruzpalaurentzako adibideak prestatu, ereduzko adibidean egiten den bezala. Adibideok modu gordinetan idatzi behar dituzte A hizkiaren ondoren, ideia nagusiarekiko lotura testualaz arduratu gabe. Lotura testual horretara geroxeago itzuliko gara, G. Arotzenaren hitzaldia ikus-entzun ostean. (10')

! Oharra: Ariketa hau nahiko zaila denez, ikasleei lagundu egin beharko diezu. Lehenbizi, bururatzen zaizkien adibideak idatz ditzatela. Ikasleak asmatu ezinik ikusten badituzu, hurrengo esaldira pasatzeko esan. Azkenik, adibidea bilatu gabe gelditu diren esaldiak denen artean egingo dira, irakaslearen laguntzaz.

- Idatzitako adibideen feedbacka emango du irakasleak (5')

! Oharra: Puntu honekin, adibideek azalpenezko testu batean dituzten bi eginkizun azpimarratu nahi ditugu: azalpena jantzi eta ulertzea samurtu, batetik; eta ideiak hobeto eta errazago gogoratzen lagundu, bestetik.

2

Ataza: Ideia nagusiak berreraiki hitz gakoetatik abiatuta

- Ahozko azalpenak egin behar direnerako beste estrategia bat, oso eraginkorra, hitz gakoak azpimarratzea da. Hitz gako horiek aski esanguratsu edo indartsuak izan behar dute esaldi osoa gogoratu eta berregiten laguntzeko. Esaiezu ikasleei hitz gako horietatik abiatuta, jatorrizko esaldietara ahalik eta zehazkien itzultzen ahalegindu behar dutela. Zehaztasuna diogunean, garbi gera bedi esanahiaren zehaztasunaz ari garela, eta hori hitz edo egitura batzuk aldatuta ere lor daitekeela. (15')

! Oharra: Esan beharrik ez dago ariketa honetan oso garrantzitsua dela jatorrizko esaldiak ezkutuan edukitzea. Ez daitezela tentazioan erori!

- Binaka bilduta, aldera ditzatela aurreko puntuan egindako esaldiak. Eztabaida ditzatela zalantza puntuak eta saia daitezela, ikaskidearen ekarpenetan oinarrituta, euren esaldiak fintzen edo birformulatzen. (10')

Feedbacka

- Bukatzeko, jatorrizko esaldietara joko dute berriro eta eurek egindako esaldiekin erkatuko dituzte. Balora dezatela zenbateraino asmatu duten, zein arazo izan dituzten, zergatik, etab. (5')

Ikas-estrategien gaineko gogoeta

- Guztion artean komentatu, labur-labur, ondorengo galderok: (10')
 - Zer iruditu zaizue ariketa, zaila ala erraza? Zergatik?
 - Horrelako teknikarik erabili al duzue inoiz? Zertarako?
 - Gerartak aukeratutako hitz gako horiek berberak aukeratuko zenituzkete zuek ere?
 - Adibidea pentsatuta edukitzeak ezertan lagundu dizue ideiak gogoratzeko?

3

Atazaurrea: eginkizunak aurkeztu

- G. Arotzenaren hitzaldia ikus-entzuten duten bitartean ideia nagusiak eta adibideak izeneko orria izango dute aurrean. Orri horretan honako informazioa daukate: (5')
 - G. Arotzenak jorratuko dituen ideia nagusien zerrenda.
 - Esaldi edo ideia bakoitzean hizlariak azpimarratu duen hitz gakoa.
 - Ideia horietako hiruzpalaurentzat eurek pentsatutako adibideak.
- Gauzak horrela, ez lukete ulertzeko arazo handirik izan behar, ia informazio guztia aurreikusita baitago. Bideo-pasartea bi aldiz ikus-entzuteko aukera izango dute. Ikustaldi bakoitzak helburu ezberdina izango du. Esaiezu bi ikustaldietan arreta honako bi zereginotara bildu behar dutela:
 1. Hizlariak ideia nagusiak eta hitz gakoak nola erabili dituen aztertu. Ikastunitateko azken atazan antzeko hitzalditxo bat egin behar dute, estrategia berberak erabiliz. Hortaz, har dezatela Gerartaren hitzaldia ere eredu moduan.
 2. B hizkiaren parean G. Arotzenak proposatutako adibideak jasotzen saiatu behar dute, ohar laburren bidez.

Ataza: hitzaldia lehenengoz ikus-entzun

- Ikasleek hitzaldia ikus-entzungo dute. (5')
- Ikasleek, binaka, hizlariak ideia nagusiak eta hitz gakoak nola erabili dituen aztertuko dute. (5')



Ataza: hitzaldia bigarren aldiz ikus-entzun

- Ikasleak hizlariak proposatutako adibideak jasotzen saiatuko dira. (5')
- Binaka jarrita, G. Arotzenaren adibideen gainean jaso dituzten oharrak alderatu eta komentatuko dituzte, hitzaldia ulertzeko izandako arazo eta zalantzak argitzen saiatuz. (5-10')

Feedbacka

- Guztion artean, irakaslea gidari dela, entzute-ariketaren zuzenketa egingo da. Ezinbestean, G. Arotzenaren adibideak zein izan diren aztertu beharko da, eta bakoitza zein ideia nagusiri zegokion ere bai. (10')

ZUZENKETA-ORRIA



Idea nagusiak eta adibideak

1. **Energia-iturri** kontzentratuak dira: beste langaiek baino energia gehiago ematen dute lursaileko. Horregatik, herrialde jendetsuenetan (India, Txina) elikaduraren oinarritzat hartzen dituzte.

A:

B: Adibide praktikoa: lursail bati errendimendurik onena nola atera

2. Elikagai aldetik oso **aberatsak** dira, behar ditugun energia, bitaminak, proteinak eta gantzen hornitzaile handiak direlako.

A:

B:

3. Labore-**aukera zabala** dago eta era askotan erabili ohi dira.

A:

B: Berak hamabost ezagutzen ditu. Asian arropa da nagusi; Afrikan, artatxikia eta basartoa; Europan, garia, batez ere; Amerikan, artoa.

4. Zapora apala, neutroa dute, beste jaki batzuekin **nahasteko** egokia.

A:

B: Ogia laguntzeko erabiltzen da, hestebeteekin, etab. Aiton-amonon garaiko talo-zopak (artoa esnetan).

5. Ia **edozein leku edo klimatan** bata edo bestea landu daiteke.

A:

B: Ipar eta hego poloetan eta basamortuan ez. Tibeteko goi-lautadatik hasi eta Mediterraneoko leku beroenetara, bai.

6. **Erraz lantzen** dira, indar handiz ugaltzen direlako eta tartean bestelako landareei haztea eragozten dietelako.

A:

B: Artoa, erein ondoren, behin edo beste jorratu egin behar da; ez du beste zainketarik behar.

7. Ale txikitik energia ugari **kontzentratzen** dute eta biltegitratzea eta garraiatzea erraza da.

A:

B: Adibide bisuala: artaburua erakusten du.

8. Alea lehorra eta olio gutxikoa dute. Horrela, usteltzeko eta gardingatzeko arriskua murriztu egiten da. **Kontserbatzea** erraza da eta urte askotan mantentzen dute beren elika-indarra.

A:

B: Gari-aletegiak eta arto-garaiak aipatzen ditu.

9. Hain errendimendu oneko elikagaia izateko, oso-oso **merkea** da. Alde horretatik pobreentzako salbazioa da.

A:

B: Beste jaki batzuen prezioarekin alderatzen du. Zerealak dira merkeenak eta errendimendu onena ematen dutenak.

- Nahi izanez gero, bideo-pasartearen transkripzioa banatu.



Gramatika eta diskurtsoa

- Bukatzeko, ikasleen ekarpenetatik abiatuta, adibideak adierazteko erabiltzen diren partikulen sintesi gramatikala egingo da. Taulako ezkerretako zutabeko partikula horiek nola erabili behar diren aztertzea da kontua, hau da, partikula bakoitzak esaldiaren barruan ze kokapen duen. Taula bete ahala, esaeizu ikasleei adibideak emateko.

ZUZENKETA-ORRIA			
PARTIKULAK	HASIERAN	TARTEAN	AMAIERAN
adibidez	X	X	X
esate baterako	X	X	X
esaterako	X	X	X
konparazio batera	X	X	X
horren adibide	X		X
kasu			X
hala nola		X	

Atazaostea: parrafoa idatzi

- Ideia nagusiak eta adibideak izeneko orrira itzulita, har dezala ikasle bakoitzak eurek proposatutako adibideren bat eta idaz dezala parrafo labur bat ideia nagusia eta delako adibide hori ahalik eta txukunen uztartuz. Uztarketa honetan, kontuan izan behar dute aurreko puntuan adibidetarako partikulen gainean egindako sintesi gramatikala. (15')
- Bukatutakoan, banan-banan, parrafo horiek denon aurrean irakurriko dituzte, ozen eta astiro. Irakurraldi bakoitzaren amaieran irakasleak testuaren balorazioa egingo du, ideia nagusiaren eta adibidearen uztarketari begira, batez ere. (25')



IRAK.LIB. 4.3.

Material osagarrietako 4.3. ariketan azalpenezko Lurrean ari testua aurkituko duzu, definizioak eta hiztegia lantzeko aproposa.



ATAZA: OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA



120'-135'

Helburuak:

- Ahozko azalpenak egiten trebatzea.
- Mintzaldia prestatzeko idatzizko zenbait euskarri (ibilbidea eta hitz gakoak) erabiltzen ikastea.
- Ogi-moten izenen ereduak emanik, antzekoak berreraikitzea.

Zertan den:

- Ikastunitate honi amaiera emateko, ikasleek ahozko azalpena egin beharko dute. Bi aukera dituzu:

- Lehenengoa, ikaslearen liburuan datorrena, ikasleek beraiek aukeratu duten ogi-mota baten azalpen edo aurkezpena. Azken emaitza horretara heldu aurretik, ikasleek zenbait pauso egin beharko dituzte:
 - ogi-motak euskaraz nola esaten diren ikasi,
 - aurkeztu nahi duten ogi-mota aukeratu,
 - ahozko aurkezpena planifikatu: ideiak bildu, ordenatu eta hitz gakoak azpimarratu.

Kontu egizu, bestalde, ahozko azalpenen eta amaierako feedbackaren artean eten bat egin beharko dela ogi-dastaketarako.

Lehenengo aukera honetan, kontuan izan nahiz eta ikaslearen liburuan gaiari buruzko artikulua izan, ikasleek asko jarri behar dutela beren aldetik: aukera izanez gero, herriko okindegietara joan beharko lukete informazioa eskatzera. Oso saiatuak ez badira, azalpenak xumeegiak izateko arriskua dago.

- Bigarren aukera, berriz, bideratuagoa da. Azalpena egiteko informazioa bideo batzuen bidez ematen zaielako ikasleei.

Aukeratutako bideoak hauexek dira:

- Errotak (23') Ghetta-Bideo eta Pedagogi Sorkuntza
- Okintza (14') Ghetta-Bideo eta Pedagogi Sorkuntza
- Talogintza (10') Ghetta-Bideo eta Pedagogi Sorkuntza

Ikasgelan hiru talde antolatuko dira. Talde bakoitzak egokitu zaion bideoarekin lan egingo du. Bideoan entzundako informazioarekin ahozko aurkezpena planifikatuko dute: ideiak bildu, ordenatu eta hitz gakoak azpimarratuz.

Ondoren, hirunaka jarriko dira aurreko taldeetako partaide bana bilduz, bakoitzak bere azalpena egin dezan.

Eta, azkenik, ogi-dastaketa antolatuko da.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: zenbat ogi-mota ezagutzen dugun

- Ezagutzen dituzten ogi-mota guztiak jasotzeko eskatuko diegu ikasleei. Gerta liteke, ikasleek izenak gaztelaniaz bai baina euskaraz ez ezagutzea; horrelakoetan, izenak erdaraz jasotzeko eskatuko zaie. Ariketa bakarka egingo dute ikasleek eta txapelketa gisa antola liteke: ea nork ezagutzen dituen ogi gehien. (10')

Ataza: ogien izenak euskaraz eman

- Ikasleei ogi batzuek euskaraz izango duten izena emango diegu euren liburuan, eredu moduan hartzeko edo; ondoren, beraien zerrendakoak ere euskaraz jartzen ahalegintzeko eskatuko diegu. Ariketa hau hirunaka egitea komeniko litzateke.

Feedbacka

- Bukatutakoan, itzulpenak egiterakoan izan dituzten arazo eta zalantzak azalduko dituzte. Irakasleak kontu horiek guztiak agertzen saiatu beharko du, ahal den neurrian. Ondoren aurkezten den zerrendak asko lagunduko dio irakasleari zeregin honetan. (10')

! Oharra: Ikasleei ogien izenak ematerakoan, komeni da inguruko okindegi euskaldunetan erabiltzen direnak kontuan hartzea.

ZUZENKETA-ORRIA	
Ogi-motak	
ogi patxaduna	ogi gatzgabea
ogi patxa eta intxaurduna	xigortzeko ogia
ogi intxaurduna	pistola / zopakoa
ogi zahiduna ("integral")	ogi harroa ("pan hueco")
gaztelako ogia	ogi tupina ("pan sobado/de pueblo")
baserriko ogia	ogi erdi-errea ("pan de media cocción")
artoa ("pan de maiz")	moldeko ogia / mami-ogia (ipar.)
ogi tipuladuna	pizza-ogia
zekale-ogia	ogi azenarioduna
ogi frutaduna (eskartxatuak)	ostia / aingeru-ogia
ogi gurinduna	
ogi xigortua	

2

Prestaketa: azalpenaren plagintza; ideiak bildu eta antolatu

- Lehenengo eta behin, ikasleek atazaren amaieran zein ogi-mota aurkeztuko duten erabaki behar dute. Honekin batera, pentsa dezatela, baita ere, zerekin lagun litekeen ogi hori: txorizoarekin...Bikoteka egin behar da aukeraketa, ondorengo prestaketa guztia bezalaxe.

! Oharra: Ikasleen azalpenaren edukia bermatu nahi baduzu, bidali ikasleak inguruko okindegi-tara ogi ezberdinen inguruko informazioa biltzera eta gaiaren inguruko artikulua irakur dezatela. (Ikus, ikaslearen liburuko 3.2. eranskina).

- Ikasleek aurkeztu behar duten ahozko testuan ideien koherentzia ziurtatzeko zerrendatzearen teknika erabiliko dugu: ikasleek zerrenda batean jarriko dituzte aurkezpen horretan ager ditzaketen puntuak.
- Ikasleek binaka egingo dute zerrenda osatzeko lan hori, gero aurkezpena egingo duten bikote berberetan. (5')
- Bukatutakoan, bil daitezela bi edo hiru bikote eta azal diezazkiotela elkarri zerrenda horietan jasotako puntu berriak. Ondo iritiz gero, beste bikote batekoek proposatutako puntuak euren zerrendara bil ditzakete; kontua, ahalik eta zerrenda aberatsena osatzea baita. (10')

Prestaketa: azalpenaren plagintza: ibilbidea prestatu

- Ager daitezkeen atalak jaso ondoren, komeni da azalpenaren planifikazioa egitea. Arestian esan dugun bezala, modu asko daude testua antolatzeko; dena den, gure proposamena hauxe izango da: **ibilbidea** prestatzea. Horretarako, ikasleek, bikotekidearekin eztabaidatu ondoren, euren liburuan dituzten biribilak osatu beharko dituzte. (20')

Prestaketa: ahozko azalpenak hitz gakoek bidez bideratu

- Ikasleei ibilbidera itzultzeko eskatuko diegu eta biribiltxo bakoitzean hitz gakoa, edo atal hori biltzen duen hitza, azpimarratzeko eskatuko diegu; ondoren, hitzok euren liburuan jasoko dituzte. Ariketa hau ere, jakina, bikoteka egingo dute. (10')



Ataza: ahozko azalpena egin, ogia aurkeztuz


- Aukeratutako ogiaren aurkezpena egingo du bikote bakoitzeko ikasle batek. Komeni da irakasleak ordura arte ez esatea haietako batek baino ez duela egingo ahozko aurkezpen hori. Aurkezpen hori egin aurretik, aukeratu dituen (dituzten) hitz gakoak arbelean idatziko ditu bikote horrek. Aurkezpen bakoitzak 2-5' iraungo du; beraz, 6 edo 7 badira, ogien aurkezpenak hogeita bost bat minutu hartuko ditu.

Aurkezpena egin ostean, ogiak eta hauei laguntzeko ekarritako jakiak dastatu egingo ditu taldeak; horregatik, aurkezpen hau egiteko egunik aproposena ostirala edo jai aurreko eguna izango da. 35-50' erabiliko dugu aurkezpena egiteko eta ondoren, mokadua. Aurkezpen horien feedbacka, beraz, hurrengo egunerako utzi beharko zenuke.

Feedbacka

- Feedbacka bata bestearen atzean dauden bi zatitan banatuko dugu:
 1. Bikote bakoitzeko A ikasleak ogiaren aurkezpena egin bitartean, B ikaslearen zeregina taldekidearen diskurtsoa aztertzea izango da; horretarako, irakasleak emango dion kontrol-zerrenda (ondoren agertuko dena) erabiliko du. Hau guztia aurkezpena egiten dugun egunean burutuko dute B ikasleek.
 2. Aurkezpena egin osteko egunean, B ikasleek jasotako oharren berri emango diete A ikasleei. Amaitzeko, talde osoan, ikasleen iritzi eta iruzkinekin batera, irakasleak berak jasotakoa azalduko du (edo bere iradokizunak).

B IKASLEEK ERABILIKO DUTEN KONTROL-ZERREDA



Kontrol-zerrenda horrek bi atal izango ditu:

- Batean, irakasleak azpimarratu nahi duena jarriko du, esaterako:
 1. Dena modu logikoan lotuta kontatu du, hasieratik amaierara? Edo, bestela esanda, ibilbidea egokia izan da?
 2. Hitz gakoaren inguruan ondo antolatu du bere diskurtsoa edo antzeman zaio dena buruz ikasia zuela?
 3. Adibide asko eman ditu?
 4. Ez du apenas gaztelaniazko hitzik erabili edo, aitzitik, hiztegiarekin arazoak izan ditu?
 5. (Irakasleak pentsatutako beste galdera batzuk)
- Bestean, ikasleak berak hartutako ohar eta inpresioak jasotzeko zurigunea izango du:



IK.LIB. 4.1.

Ikaslearen liburuko 4.1 material osagarrian. Dastatu literatura atalean Bernardo Atxagaren Behi euskaldun baten memoriak liburuaren pasarte batzuk eta edukiaz jabetzeko proposamenak dituzte ikasleek.



IK.LIB. 4.2.

Ikastunitatean hiztegiarekin egindako lana aztertzeko eta ebaluatzeko parada dute ikasleek, euren liburuko 4.2 material osagarrian: Hiztegia eta Oroimena. Eman aukera ikasleei emaitzen eta oroimenaren gaineko gogoetaren inguruan klasean aritzeko.

! **Oharra:** Gairen inguruan zer edo zer gehiago landu gura landu gura izanez gero, hona hemen erreferentzia hau: Ghetta. Bideo eta Pedagogi Sorkuntza 1993: Okintza. Hamalau bat minutuko bideo horren eskema: sarrera (informazio orokorra), 2) Osagaiak banan-banan, 3) prozesua (zelan egin ogia etxean), eta 4) aholkuak.

1. BIDEO-PASARTEAK

ATAZA: JAKIRIK ONENA, EZAGUTZEN DENA



1. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 7'26"

- IXABEL.** Eustakio, honez gero kezkatuak izango dituzu etxeokak.
- EUSTAKIO.** Kia! Badakite-eta azoka-egunean nire gisa ibiltzen naizela. Ni bai kezkatua, balore guztiak bertan behera erori zaizkit eta!
- IXABEL.** Gure Agustin, eguna zabaltzearekin batera etxetik irten eta gaua arte taberna zulo batean dagoela baneki, ez dakit zer egingo niokeen!
- EUSTAKIO.** Bereak eta bost entzun beharko lituzke.
- IXABEL.** Jakina! Mozkor-mozkortuta zaudela pentsatuko dute.
- EUSTAKIO.** Bai. Eta hori pentsatzea nahi dut nik.
- IXABEL.** Benetan ari al zara? Ezin dut sinistu.
- EUSTAKIO.** Okerragoa litzateke zertan ari naizen jakingo balute.
(Telefonoajoka)
- EUSTAKIO.** Emaztea bada, esaiozu berehala bidaliko nauzula etxera.
- IXABEL.** Barrenet taberna, esan? Bai, hemen dago... Edanda? Edanda, edanda... ez. Pixka bat alai, beharbada... Bai, bidaliko dut... Bai, esango diot, nire kontu, eh? Agur.
- IXABEL.** Erosketak ez ahazteko eta oiloentzako pentsua ere emateko.
- EUSTAKIO.** Lasai! Hortxe dauzkat-eta.
- IXABEL.** Mugitu zaitetz eta joan zaitetz lehenbailehen etxera.
- EUSTAKIO.** Bost minutu. Wall Street-eko azken datuen zain nago-eta.
- IXABEL.** Ai, ene, etxekaltea!
- ANTTON.** Ixabel!
- IXABEL.** Kaixo!
- ANTTON.** Txistorra eta hirugiharra.
- IXABEL.** Oso ondo, oraingoan konpleto gaude.
- ANTTON.** Dena pronto dago, ezta?
- IXABEL.** Bai, begiratu, oraintxe taloak jartzera, aurrenekoa.
- ANTTON.** Eta zu taloak egiten, Ixabel, gurea izango da saria.
- IXABEL.** Aizu! Oraingo honetan ez dut zalantzan jartzen.
- KATTALIN.** Aizue! Zer gura duzue esatea, bada. Txorakeria galanta, eh? Nik ez diot atarramendu onik ikusten honi.
- ANTTON.** Baietz, neska! Mundu osoan ospatzen da. Eta, lehenengo saria irabaziz gero bihar, Euskal Herriko egunkari guzti-guztietan azalduko da iBarrenet tabernako taloa zerealaren nazioarteko egunean mundiala!
- IXABEL.** Bai, horixe!
- KATTALIN.** Ez dakit bada, ez dakit bada...



- KATTALIN.** Bai? Ez laztana, ez, ez, ez. Ez zait gustatzen.
- IKASLE.** Behar-beharrezkoa da. Bestela pantailan oso zuria azalduko zara.
- KATTALIN.** Ezetz, bada. Ez zaidala gustatzen.
- IKASLE.** Zu bai, ez?
- IXABEL.** Bai, horixe! Bai. Ondo makilatu.
- IKASLE.** A, ze guapa azalduko zaren!
- IXABEL.** Aizu, ondo al dago?
- ANTTON.** Primeran.
- IXABEL.** Egia al da munduko bazter guztietatik ikusiko gaituztela.
- ANTTON.** Ba, bai. Halaxe da.
- IXABEL.** Aiiiiii!
- ANTTON.** Euskal Herriko taloari, 3 puntu. To the talo from de Basque Country, three points, Eurobisioko festibalean bezalaxe.
- KATTALIN.** Tira, utzi inuzentekeriak eta hasi lanean. Epaileak laister izango dira hemen-eta.
- IKASLE 2.** Gantza?
- KATTALIN.** Ezta pentsatu ere, ez. Arrainaren usaina.
- ANTTON.** Txangurroa! Txangurro-talaa! Mundiala zara, Ixabel!
- GIZON 1.** Jaun-andreok, gabon dizuela!
- DENOK.** Gabon! Baita zuri ere.
- GIZON 2.** Norena da hor kanpoan bigarren lerroan aparkatuta dagoen zaldi-gurdia? Alguazila bertan dago isuna jartzeko gogoz.
- EUSTAKIO.** Mekaxuensos! Banoa, banoa!
- GIZON 2.** Gantza.
- GIZON 1.** Ez, arraina.
- ANTTON.** Txangurro-taloak, gizonak. Etxeko gutizia. Jan, jan. Jan ezazue zatitxo bat.
- GIZON 2.** Ez, arautegiak ez digu uzten.
- ANTTON.** Dastatzeko ere ez?
- GIZON 2.** Ez, batere ez.
- IKASLE.** Kongokoak ari dira, Txikwanga izeneko zereal-nahasketa bat atondu dute. Gero gure txanda da. Eta amaieran mexikarrek tako bat prestatuko dute. Zuek lasai, nik esango dizuet noiz hasi.
- ANTTON.** Eta, ba al dugu irabazteko aukerarik?
- GIZON 2.** Gure ustez, aurtengo lehiaketan Venezuelako arepa, Wisconsin-ko pancake eta hemengo taloak dira faborito.
- ANTTON.** Ixabel, gaur euskal sukaldaritza berriko liburuan urrezko txoko bat irabaziko duzu, txangurro-taloari esker.
- IXABEL.** Berriz ere bai? Ez dela txangurro-talaa, betiko talaa dugu.
- ANTTON.** Ze izango da betiko talaa! Hau txangurro-talaa da.
- IKASLE 1.** Gure txanda, airean gaude!
- GIZON.** Gabon, Kongo, gabon, mundu guztiari. Hemen ditugu Euskal Herriko aurtengo ordezkariak, Barrenet tabernakoak. Talo izeneko ogia egin dute arto-irinaz. Beraz, lehiaketa honen lehen baldintza betetzen dute. Zereal batez eginiko izatea... jakia izatea, alegia. Baina gure Ixabelek zer edo zer nahastu omen dio hobetu nahian.
- IXABEL.** Ezetz, bada!
- GIZON.** Eta beste baldintzak ere betetzen dituen jakiteko, azterketa egingo dugu segituan.
- IKASLE.** Aizu, polikiago! Ingelesera itzuli eta idatzi egin behar dut.



- GIZON 1.** Taloetako bat hartuko dugu, edozein... hauxe bera. Itxura bikaina, kolorea urre zaharrarena, tolesterakoan ez da hausten eta krask leun bat entzuten da. Primeran. Usaina, benetan zoragarria. Eguzkiaren lehortasuna eta lurraren hezetasuna ondo orekatuta. Ahoan sartu orduko zapore-leherketa bat da: goxoa eta mikatza.
- GIZON 2** Hori dena, itsas zapore leun batez perfumatua. Gure herriko sintesi bikaina lortuz, hau da, itsasoa eta mendia.
- EUSTAKIO..** Barkatuko didazue, baina arto-irin poltsa hauek eraman ditut oilaskoentzako pentsua zelakoan.
- IXABEL** Hau da, bada, nik erabili dudana.
- ANTTON.** Pentsua? Osagaiak: arrain-irina, bitamina E-24...



ATAZA: ELIKAGAIK ETA ZEREALEN ABANTAILAK



2. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 5'46"

- ANTTON.** Arratsalde on, hemen Barrenet tabernatik. Gaur, dakizuen bezala, gaur Zerealaren nazioarteko eguna Interneten ospatzen dugu, eta, hori dela eta, Kattalin tabernan hainbat ekintza antolatu ditugu, besteak beste hitzaldi bat. Hitzaldi bat, eta hori ematera etorri zaigu gure lagun Gerarta Arotzena (kaixo!) eh, bera ezagutzen duzue, dokumentalista eta gai honetan oso jantzia. Sariren bat ere jasoa du dagoeneko. Ba, berak kontatuko dizkigu zerealen abantailak, ezaugarriak eta abar, eta abar. Dena prest daukagu, ezta?
- G.A.** Ez. Ura, mesedez.
- ANTTON.** Kattalin, ura.
- KATTALIN.** Barkatu, ahaztu egin zait.
- G.A.** Bai, lehor-lehor geratuko naiz bestela-eta.
- ANTTON.** Bueno, orain bai, ez? dena prest. Bueno, dena prest daukagu. Ba, berak hitz egingo dizue eta entzun arretaz, eh? Benga, aurrera Gerarta.
- G.A.** Zerealak. Beno, zerealei buruz labur mintzatzea eskatu didate, nahiko gauza zaila da baina, tira, niretzat behintzat.
- Lehenbizi aipatuko dudana energia da. Demagun lursail bat dugula eta lursail horrekin elikatu behar dugula gure sendia. Beno, ba, aukera ezberdinak ditugu: larre edo belardi gisa utz dezakegu eta bertan behiak edo ardiak ipini eta haien okela eta esnearekin eta gaztarekin eta abar eta abar, ba, elikatzen saiatu, ezta? Beste aukera, ba, frutarbolak ipintzea litzateke, edo baratza jartzea, edo zereal-soro bat: artasoroa edo gari-soroa eta abar. Azken aukera hau da lursail jakin horrekin jende gehien elika dezakeena: hau da, jendeari energia gehien ekarri edo eman diezaiokeena; jende gehien elika dezakeena. Horregatik landu izan dira, esate baterako, urruneko Japonian, Txinan, Indian eta abar arroza gehienbat, ezta? Arroza nagusiki.
- Elikagaiei aipamena egin diegu eta elikagai aberatsak dira zerealak. Energia ugari ekartzen digute, behar dugun guztia; proteinak ere dezente ekartzen dizkigute, gantzak ere bai, eta bitamina, ba, aipagarriak ere bai. Ez gara sartuko banan-banan horiek aipatzen, baina tira, nahiko elikagai aberatsak dira, beraz.
- Gainera, zereal aukera zabala dugu: nik 15 bat edo ezagutzen ditut, eta munduan zehar lekuan leku aukeraketa desberdina eginda. Lehen aipatu dugu Asiako arrozaren kasua, aipa dezakegu Afrikan, bere garaian eta gaur egun ere, artatxikia eta basartoa direla elikaduraren oinarria, European garia aukeratu zen, eta leku batzuetan ere oloaz, zekaleak ere eta garagarrak garrantzia izan dute. Eta, noski, Amerikaz hasten baldin bagara, ba, han artoa izan da nagusi, ezta?
- Gainera, zerealak ez dira bakarrik jaten, normalean nahasita jaten dira, eta horregatik konbinatzeko erraztasuna dute eta gainera konbinatu beharra sentitzen dugu, ezta? Ogia laguntzeko erabiltzen dugu, ogia ere, ogitartekoz betetzen dugu, eh, hestebetez, edo horrelako txorizoz edo bestelako zerarekin. Eta, bon, gure arbasoek, gure aiton-amonek ziur aski talo-zopak hartzen zituzten, ezta? Artoa edo taloa ogitan bustita, barkatu, esnetan bustita, noski.
- Aipatu behar dugu, baita ere, edozein klimatan badagoela, ia-ia zerealen bat lantzerik. Noski basamortu-basamortuan ez dugu aukerarik izango, iparburu edo hegoburuan ere ez, baina Tibeteko lautadatik hasiz, ba, Mediterraneoko lekurik beroenetara arte badugu zerealen bat egokitzerik edo lantzerik.
- Erraz lantzen dira gainera. Erein ondoren pixka bat zaindu beharko ditugu, artoa adibidez, behin edo behin jorratu beharko dugu, baina hortik aurrera indarra hartzen dutenean bere kasa hazten dira eta bestelako



landareak haztea eragozten dute. Beraz, bakarrik utz ditzakegu eta langai nahiko erraza da beraz. Bestetik, eh, oso elikagai... hobe esan, oso kontzentratuak dira. Hau da, hazi txikitan biltzen dute bizia, biltzen duten propietate horiek guztiak. Horrek zer ekartzen du, ba, maneiatzeko, garraiatzeko erabiltzeko erraztasun handia.

Eta, bestetik, aipatuko dugu ere kontserbatzeko erraztasuna. Alea lehortu ondoren, eta lehenbizi lehortu egin beharko dugu, baina %10 bateko hezetasuna geratzen da eta horri esker luze iraun dezake bere propietate guztiak mantenduz. Luze irauteko, noski, baldintza berezi batzuk eman behar zaizkio. Gariari, adibidez, aletegitan sartu, garia aletegitan sartu, eta artoa, hemen ohitura izan den bezala, garaia edo garaixetan biltzen zen lehortzen amaitzeko, lehorra mantentzeko eta karraskarien hortzetatik aldentzeko, ezta?

Beraz, ah, azkena falta zaigu, merkea, merketasuna. Kilo bat okel, kilo bat... barkatu kilo bat okela, kilo bat arraina, kilo bat fruta, kilo bat babarruna hartuko baditugu eta kilo bat zereal, kilo bat zereal izango da bestea baino dezente merkeagoa, eta gainera horrekin jende gehiago elikatu ahal izango dugu.

Beraz, hauek izan dira, nik horrela, laburki, aipatuko nituzkeen bederatzi puntuak eta, beno, ba, orain zuen txanda da, galderarik baldin baduzue.

ATAZA: ELIKAGAIAK ETA ZEREALEN ABANTAILAK

2. ALEDUN, LABORE, ZITU EDO ZEREALAK



3. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 19'42"

- ELKAR.** ... zer da hau? Garia, hala uste dut dela, baina nik kontu honetaz oso-oso gutxi dakit, galsoro batean ia-ia galduta bezala nago eta pote hauen guztien jabea? Hementxe dago neri begira eta onena berehalaxe etortzea izango dugu, eh? Gerarta Arotzena. Zatoz niri laguntzera; izan ere, ni poteatzen ibilia naiz, baina hainbeste poteren artean seko naiz, eh?
- G.A.** Bai, hau edateko latza, latza da.
- ELKAR.** Bueno, ezer baino lehen esan beharra daukat Gerarta Arotzenak CAF-Elhuyar sarietan bigarrena, irabazi zuela, (bai) orain... joan den astean izan genuen, hementxe, (bai) zera... Xanti Pagola, tximeleta maltzur horretaz hitz egiten...
- G.A.** Bai. Lehenengo sariduna.
- ELKAR.** Eta zuk, beraz, ale edo zerealak, zituak edo beste... labore ere esaten dugu hemen, ezta? Horretaz idatzi duzu Elhuyarren, oraindik ez da argitaratu, gainera.
- G.A.** Ez.
- ELKAR.** Laister.
- G.A.** Datorren hilean espero da, bai. Otsailean izango litzateke.
- ELKAR.** Eta hori saritu dute.
- G.A.** Bai. Bigarren saria eman didate.
- ELKAR.** Beraz, oso ona izango da zure artikulua. (Bueno, ahalegindu naiz.) Zer esan nahi diguzu artikulua horretan?
- G.A.** Bueno, ahalegindu naiz. Erdi-erdiko, zera, mezua izango litzateke hauei esker, zera, aledunei edo zerealei



esker eraiki ahal izan zela zibilizazioa. Hau da, hirietan bizi ahal izatea eman da landare hauei esker. Bestela ibiliko ginateke...

- ELKAR.** Eraiki... eraikuntza modua... eraiketa egiteko eta ez... hauek izu... izugarritzko garrantzia izan dute, ezta?
G.A. Ez. Bai. Hori... hauek... nolabait landu baino lehen, eta esango genuke lehenengo zerealak duela 10.000 bat urte Babilonia inguruan edo azaldu zirela, Oriente Hurbilean edo... Ekialde Hurbilean esango genuke hobeto, ba, nolabait esateko, hori baino lehen nomada modura ibili behar genuen, batetik bestera fruituak jasoz, ehiza eginez eta abar, ez? Eta hauek lantzen hasi zirenetik, nolabait orekatu edo, hobe esan, egonkortu... Edo finkatu egin ahal... egin ahal izan ziren, ze... nolabait segurtasuna ematen zien, ez? (Bai, bai, bai, bai.) Ez zuten egunero-egunero ibili behar jakiaren atzetik, zeren hauek oso ondo kontserbatzen ziren. Nolabait leku lehorrak, karraskarietatik, pixka bat saguak eta abarretatik, pixka bat hurrn mantenduz gero, ba, urtetan ere iraun dezakete.
- ELKAR.** Esate baterako, Egipton ere bai, ezta? Egipton ere bazuen bere garrantzia.
G.A. Bai, bai, bai. Eta Egipto... aipatu dugu Babilonia, Egipto, Grezia, Erromak oinarritu dira garian. Txina, India eta Japonia oinarritu dira... bueno India esaten dudanean India zabala, ezta? India, zera, inguru hori guztia arrotean oinarritu dira. Eta baldin bagoaz Ameriketara, ba, han, gehienbat inkek, mayek eta aztekek artoa izan zuten. Beste tribu batzuek ere, iparraldeko indiar batzuek ere, ba... ez ditut izenak aipatu, ez naizelako oroitzen, baina baita ere nolabait landu zuten, baina gehienbat zibilizazio horiek aledun horien gainean, edo zitu, edo labore horien gainean eraiki ziren. Eta horiei esker sortu ziren bai artisautza, sortu ziren nolabait maila sozialak, ze batzuek gehiago zuten besteek baino. Nolabait diferentzia sozialak hor hasi ziren. Hasi ziren baita ere espezializazioak lan aldetik, baita ere fraile eta mojak eta bestelako, nolabait, gizarte-maila, ezta?
- ELKAR.** Hori da? Hortik datorrela gaurko zibilizazioaren zera hau, ezta? Oso urruti bizi gara ale haueetatik, baina, aizu, hala ere... Egipto aipatu duzu zuk, eta...
G.A. Bai.
ELKAR. Faraoiek hartuko zuten... bueno Faraoiek ez dakit, baina morroiek eta hartuko zuten horrelako traste bat Piramideak egiteko. Ikusi
- * * *
- ELKAR.** Eh? Horrelako traste bat, eh, hartuko zuten?
G.A. Gustura.
ELKAR. Pala bat?
G.A. Eta handiagoak ere.
ELKAR. Ikusi du... ikusi duzue Gerartak, bueno, bueno... poteak ekarri dizkigu eta baita, baita landare-mordoa ere. Ea, eser zaitez, lekurik hartzen baldin badugu. Orduan zuk, hori garbi ikusten duzu, eh? Zibilizazioetan hauek izugarritzko garrantzia izan... bueno, hauek ez, pote barruan dauzkagun hauek, noski. Ez? Baina, eh, garrantzia handia izan zutela.
G.A. Bai, bai, bai, bai. Eta hori niretzat izan zen, bueno... nik lortutako konklusioa izan zen, ez nuen inon irakurri ere, baina poliki-poliki aztertzen joan nintzen neurrian, Faraoiena oso argi dago. Faraoien lehenengo funtzioak, gero noski, itxura egitea eta errebistatan, errebista horietan, edo, bueno, bihotzeko ererrebistatan azaltzea eta ere izan zen, ez? Baina...
ELKAR. Orduan ere bazuten? Bazeuden orduan ere?
G.A. Ba, bai. Zera... hor hormatan eta badakizu, ez? Hormirudiak eta bestelako grabatuak eta abar. Baina bere funtzio nagusia izan zen esatea noiz hasi behar zuten ereintza eta noiz bildu uzta.
ELKAR. Faraoiena?
G.A. Bai. Eta urak arautu eta hori guztia izan zen faraoien zeregin nagusietako bat. Uste zuten Jainkoak esaten ziola noiz egin, ez? Eta berak bere azpikoei, mendekoei esaten zien. Beraz, artikuluan esan dudan bezalaxe, eh, faraoiak... zera... piramideen altzoan ehortzi aurretik garagarrez eta gariz egindako piramide batean goratu zituzten. Ez?
ELKAR. Ah! Aizu, entzuna daukat piramideen kontu horren inguruan orain dela gutxi edo aurkitu dutela hor, Egipto



alde horretan, zeraren bat, erabat galduta zegoen aleren bat, eta hortik lortu dutela, gainera, zuk esan duzu oso ongi kontserbatzen baitira, ezta?, ba, zera ekartzea, ezta? Ale hori ekartzea eta...

G.A. Bai, bai, bai. Ernetzea eta landarea lortzea eta... posible da, posible da, posible da. Nik ez dakit... entzun dut noti... berria, entzun dut, baina ez dakit ea zer lortuko duten. Hala eta guztiz ere, antzinako bariedade bat topatzea oso interesgarria izan liteke.

ELKAR. Bueno, hemen ari gara faraoiak, bueno, Txinan ere, han arroza, ezta? Oraindik ere bai eta lehen, eh, mendetan etorriko da, Ameriketara aipatu digu, ezta? Gerartak nola artoak eta garrantzia zuen, eta, bueno, aleak edo zerealak ari gara aipatzen eta jainko bat ba omen da hor, ez? Edo jainkosa bat, aleena. Hortik dator zereal hitza, ezta?

G.A. Bai, zera, greziarrentzat Demeter zen ale eta uzten jainkoa eta aldiz, erromatarrentzat... antzinako erromatarrentzat izan zen Ceres. Eta hortik dator zereal hitza, ez? Gehienbat mundu guztian izen horrekin ezagutzen dira. Hala eta guztiz ere, pentsatzen dugu bakarrik Corn Flakes-ak direla zerealak, ez?

ELKAR. Bai.

G.A. Gosaltzeko horiek.

ELKAR. Bai, bai, bai, bai.

G.A. Eta ez da egia. Egunero jaten dugu ogia, arroza eta hainbat gauzatarako erabiltzen den baita arropak, zera, gogortzeko erabiltzen den almidoia hauetatik ateratakoa da, neurri batean behintzat.

ELKAR. Hamahiru ekarri dituzu, nik dakidala.

G.A. Bai. Hemen 12 daude, arroz beltzari aipamen berezia egin diot, ze arroz basatia edo, eh, zera, nola izena daukana... Kanada eta Estatu Batuetako... Estatu Batuak arteko, eh, aintzira handitan biltzen... (arroz beltza). Bai. Arroz beltza edo nik... bueno, basarroza edo arroz basatia izango litzateke, ezta? Hau ez dute ereiten, ez dute lantzen, baizik eta bildu bakarrik, nahiko modu berezi batean. Nik National Geographic batean izan nuen honen berri eta gerora Estatu Batuetara joandako adiskide batek ekarri zidan. Bai, eta oso berezia da, ez? Baina...

ELKAR. Bueno, gainera... horretaz gain, lortu ezezik probatu ere egin duzu, ezta?

G.A. Bai, bai, bai. Bai hori eta bai besteak, ze oso gauza bereziak ematen dituzte. Hemen 12 ekarri ditut, 13 dira, ze... garia, berez, bi gari desberdin daude: bata gogorra eta bestea irintsua, ez? Bi espezie dira, antzekoak izan baldin badaitezke ere, baina...

ELKAR. Potoetan aleak dauzkagu, hor ikusi dugu... Garia zein izango litzateke hauetatik guztietatik?

G.A. Garia... hemen, ea... non dugu garia, ba, hor aurrean badugu.

ELKAR. Ah! Ba, hartu, hartu, hartu!

G.A. Hor aurrean badugu garia, uste dut behintzat.

ELKAR. Ea, erakutsi egingo dugu.

G.A. Hauxe, adibidez, garia litzateke. Gari... eh, gari irintsua, ogia eta egiteko eta erabiltzen dena ilegabekoa izaten da. Ez beti, baina gehienetan ilegabekoa izaten da. Aldiz, gero, ile edo... ile esan dut baina bizar izango litzateke hitz aproposena. Bizarra dutenak, adibidez, hauek izan daitezke gari gogorak eta garagarra ere bai. Garagarra ere baditu ileak, eta badugu garagar bizar beltza, badugu hemendik, oso-oso polita... non topatuko dugu?

ELKAR. Hemen, hemen. Mordoa daukagu.

G.A. Bai, bai. Egia esan, askotxo izango da...

ELKAR. Ea, bizar beltza hau ote da? Garagarra. Garagarra ea erakusten dugun...

G.A. Badute bizarra beltza, uste dut badagoela beltzagoa oraindik, baina hau oloa da. Oloak ez du ematen nolabait buru bat baizik eta sortak ematen ditu nolabait, ezta? Beste hau dugu erratzak egiteko erabiltzen den basartoa. Gaztelaraz sorgo, nahiz eta han erratzak egiten duten lekuan...

ELKAR. Hau badaukagu oso polita, ezta? Basartoa. Begira ze polita, begira...

G.A. Baina aspaldi batean guk agian erabili dugu, baina gure aitonek eta amonek, zera, beste landare batez, uste dut erratzaz, erratzaz egindakoaz gain, egiten zuten baita ere ba, honekin, eh? Ba, basartoaz egiten zuten. Eta badago beste basarto-mota bat...



- ELKAR. Ezinezkoa ulertzea, alegia, irina... irina egin eta bueno, taloak eta...
- G.A. Basartoa, basartoa animaliei jaten emateko bigarren landarea da. Artoa da, eh, animaliei jaten emateko lehenengoa eta giza kontsumoan jateko hirugarrena. Lehenengoa garia litzateke, bigarrena artoa...
- ELKAR. Hor, eskuan duzun hori...
- G.A. Bai, hau ere basartoa da. Barkatu, hemen ile eta hutsa badu, baina hau basarto beste mota bat da, esango genuke basarto... alea emateko basartoa, animaliei ematekoa. Hau erabiltzen da... bai, jateko erabil daiteke, baina erratzak egiteko gehienbat, behintzat Arketasen, Nafarroan, ez? Hor hegoaldean...
- ELKAR. Hortik lortu duzu?
- G.A. Bai. Eta artoa ere han bertan badago. Hemen ikusiko dugu artoa. Gehienek ez dugu ikusi, nahiz eta askotan jan izan dugun.
- ELKAR. Bai, ezta? Nik ia zera ikusten dut eh? pakete, pakete barruan.
- G.A. Hauxe da artoa. Ez dakit errealizadoreak hartu ahal izango duen planotxo bat, hurbilekoa
- ELKAR. Hartuko digu, oraintxe...
- G.A. Eta Arketasen aurkitzen da.
- ELKAR. Hau da artoa, eh? Horrela egoten da, eh? Begira, begira!
- G.A. Horixe da artoa, bai. Gainera urrian... zera, urriako Birjina, ez dakit ze Birjina horren, famoso horren inguruan... 12 inguruan...
- ELKAR. Pilarika.
- G.A. Pilarikaren inguruan biltzen da. Hispanidade-egunaren inguruan eta hori guztia. Eta hau oso berezia da. Ez dakit sartuko ote duzuen beste irudirik, baina hau lehorra dago, pena da, baina bestela, eh... zuztarra gorri-gorria izaten da eta hau lehen ezagutzen zen...
- ELKAR. Eta zer ba? Zer da hau?
- G.A. Lau izen ditu euskaraz.
- ELKAR. Bueno, esan. Bota lauak orduan.
- G.A. Ez. Hiru, hiru. Barkatu, gaizki esan dut. Hiru dira. Izango litzateke: kixkia...
- ELKAR. Hara! Kixki, Mixki eta Kaxkamelon.
- G.A. Bai. Gari beltza ere deitzen zaio. Artobeltza ere deitu izan diote nahiz eta gero badagoen arto bat ba kolore desberdineko artoak dauden eta abar, eta ilunak eta urdinak eta beltzak eta abar, ez?
- ELKAR. Ikusten ez bazaigu! hemen gaude, eh?
- G.A. Bai. Ikusi duzue hau...
- ELKAR. Kamufaturik, eh?
- G.A. Ba, koloretako artoa baditugu: artagorria...
- ELKAR. Horiaz gainera, ez da? Bueno entzuna dut Ameriketara urdinak eta egiten... badaudela, ezta?
- G.A. Nik uste dut etxean badudala ere urdina zerbait. Eta esaten nuena: honi ere pagotxa deitu izan diote, ze haziak badu pagaziaren antza. Orduan, Aizarnazabalen bertan, bizi naizen herrian, zera, ba, pagotxa deitzen duen emakume bat topatu nuen eta ezagutu zuena garai batean. Orain, hau lortzeko joan behar izan dut Frantziaraino, egia esan.
- ELKAR. Eseri, eseri, Gerarta. Bueno, horrelako 5 minutuko ikastaro trinko bat eman diguzu aleei buruz eta.
- G.A. Oso azaletik. Gomendatuko nuke Elhuyarreko artikulua irakurtzea...
- ELKAR. Hori esan behar dugu. Hemen, badakizue, denbora ez daukagula, orduak eta orduak ez daukagula hitz egiteko eta, baina Elhuyar aterako da zure artikulua oso-osorik eta benetan ez dauka... hementxe daukagu, hementxe, bueno, primizia pixka bat emango dizuet, nahi baldin baduzue, baina hau Elhuyar aldizkarian irakurri ahal izango duzue. Bueno (aleak) zerealak badauzkagu eta gordetzeko eta garrantzitsua zen ongi gordetzea. Hau da leku lehor batean, karraskariengandik eta urruti eta...
- G.A. Eta hezetasunatik ere.
- ELKAR. Hori da. Hezetasuna.
- G.A. Ze, gure lurrian behintzat, ba, hezetasuna da nagusi, ezta? Iparraldean behintzat, eta horretarako sortu zen garaia. Garaia edo garaixea. Garaiak esan nahi du altxata dagoela, eta...



- ELKAR. Hau, ikusten ari zareten hau, hementxe... hemendik, eh...
- G.A. Ehun metrotara, bai.
- ELKAR.. Bueno, ehun baino gehixeago, baino, bai, bai, 500 metro baino gertuago daukagu, ikaragarri polita da. Neroni ere barruan orain dela gutxi ibilia naiz, eta Gerarta, aitortu beharrean nago "garaia" hitza, guk erabil... bueno, erabili izan dugu euskara batuan: mendi garaia esateko, eta horrela, ezta? Ba, bueno, goian dagoena, baina horreo hori izendatzeko hementxe ikasi nuela orain urte batzuk, eh? Bestela nola, oso gutxi daude hauek Euskal Herrian, ezta?
- G.A. Bai. Testuetan agertzen da, aspaldiko testuetan, duela 200 edo 300 urte dirudenez, ba, basetxe bakoitzak, baserri esaten zaio normalean, baserri, baserria, herria izango litzateke, basetxea, etxea. Ba, basetxe bakoitzak ba omen zuen, zera, garaixe bat. Inguru batzuetan behintzat, ezta? Gertatzen dena, hemen, kostaldean, eh, zurez egiten zirela, eta zura usteltzera jo... usteldu egiten da, ezta? Nafarroan, aldiz, eta Galizian baita ere, egiten dituzte harriz, eta orduan gehiago irauin dute, horiek behintzat, harrizkoak. Eta Gipuzkoan, nik dakidanez bi geratzen dira, Bizkaian beste batzuk ere, ez dakit 3 edo 4 edo geratuko ote diren, hemen bertako, hauxe, ikusi dugun hau...
- ELKAR. Hau, oso ongi dago. Konpondua dago eta.
- G.A. Eta pena da, ba hori, desagertu izana, ez?
- ELKAR. Bueno, horrek izango du arrazoi bat, ezta?
- G.A. Bai. Berreskuratzen ari dira.
- ELKAR. Bai. Baina bueno, arrazoi bat esan nahi dut, beno, hemen zerealak egiteari ere, bueno, Bizkaian, Gipuzkoan eta...
- G.A. Bai, begira. Zerealak izan dira, esan dugu zibilizazioaren oinarri eta gure aiton-amonen eta arbasoen elikaduraren %80a. %80 inguru izan dira. Zeren, noski, neguan zer jan? Ez zegoen kontserbatzerik ez okelik...
- ELKAR. Bueno, gaztainak eta intxaurrak eta horiek aparte, ez? Horiek ez dira sartzen eh...
- G.A. Bai, bai. Beti bilketa, bilketa da, ez? Baina negu-neguan eta udaberriaren hasieran gogorra izaten zen, ezta? Eta hauek guztiak, landare hauek, bueno, oloa agian gutxixeago, baino kontserba zitezkeen, baldintza aproposak emanek eta garaia horretarako zen, ezta? Eta gero, noski, ez zuten horrela bere hartan jartzen, eraldatu egiten da. Eta horretarako, noski, uruna edo irina lortzen da, eta horretarako zegoen errota, ezta?
- ELKAR. Edo eiherak, ezta?
- G.A. Bai. Bueno, eihera izango litzateke animaliek edo pertsonen bultzatutakoa. Iparraldean erabiltzen dute ere errota esateko. Hemen Bizkaian badago beste hitz jator bat, bolua; bolua, errota edo, eta... eta eihera, eihera izango litzateke odol-errota, hau da: animaliek bultzatutako errota, eta animalien artean gizakia, ez da? Eiherak, nolabait, erromatarrek erabiltzen zuten zigorretarako... erabiltzen zuten...
- ELKAR. Han lotu eta hara, bueltaka, bueltaka eta...
- G.A. Gero Donostian egin nahi izan zen baita ere, eh, badakizu, eh? Hor gazteluan eta, guda kontuak direla eta jarri nahi izan zen ere eihera bat, ba, asedio edo inguratuta zeuden garaietan... unetan esan nahi dut, jan ahal izateko alea ehotu eta jan ahal izateko. Orduan, alea ehotzen zuten jan ahala. Ez zuten irina edo uruna, eh, denbora mordoan edukitzen.
- ELKAR. Klaro, bestela irina kontserbatzea zailagoa izango zen, noski.
- G.A. Bai, galdu egiten da. Eta are gehiago jakinda gaur egun irin ia, edo urun ia guztiak zuriak jaten ditugu, ez? zuriak. Baina hauek xehetuz gero ez dugu zuria lortzen, lortzen dugu integrala, lortzen dugu osoa.
- ELKAR. Bai, zahia kendu egiten zaio.
- G.A. Eta zahia kentzea oso gauza sinplea da, baina horretarako teknologia berezia behar da. Sare fin hori egiteko teknologia nahiko berezia behar da eta hori ez zegoen eskuragarri.
- ELKAR. Ikusten ari zarete, ezta? Gure pote guztiak hementxe daukagu. A ze ilara ekarri digun Gerartak! Nolabait oraintxe gaude, ba, ale hauek errotatan sartzeko prozesu horretan. Bueno, errota aipatu dugu, odol-errota, oso polita. Gero bestetik, bueno, gehienbat Euskal Herrian ibai-errota egongo zen?



- G.A.** Gutxi gorabehera bi mila bat egon ziren ibai-errotak eta aldiz bazeuden beste aprobetxamendu oso azkarrak edo, zera, jakintsuak, ezta? Izango lirateke itsas-errotak, hau da, itsasoaren gorabeherak aprobetxatuz, mugitzen ziren errotak. Ibai-errotaren oso antzekoak dira. Hau da Arteagako koba-errotak. Artikuluan aipatzen dut ez diotela hau martxan adituak jartzen uzten eta konponketak egin behar bazituen... esan, eta gaur bertan esan didate, ba, martxan jartzekotan daudela. Hau udan, datorren udan, eh, (itsas-errotak, alegia, itsasoaren ura erabiltzen du, ezta? Marea gora datorrenean aldaparoa bete edo...). Hau Busturian dagoena dela uste dut. Hau berriz, dugu... (Arteagan, ezta?) Bai, bata... hor hiru edo... ikusi ditugu pare bat, uste dut, eta hori, Gernikako, bueno, eh... (Urdaibai) Urdaibai. Urdaibai... itsasadarraren inguruan daude geratzen diren horiek. Gainera, eh, hau koba-errotak aipatu duguna, martxan jartzeko moduan eta martxan jartzekotan dago, eta, omen da, behintzat, ez dakit Portugalezko... Portugaleko datuak ez dakizkit, baina, zera, penintsularen iparraldean geratzen den martxan jartzeko moduko geratzen den bakarra. Garai batean Euskal Herrian 33 izan ziren eta gero izan ziren baita ere haize-errotak. (Haize-errotak.) Eta haize-errotak 15 bat inguru edo izan ziren, gehienbat Bizkaian, eta gehienbat lehorte baten ondorioz. Oso gauza berezia da, ezta?
- ELKAR.** Ah! Hemen bertan, hemendik... bertan ez, baina inguruan ezagutzen dut bat eta, bueno, ez ditu bueltako egur-aspa handi horiek, baina gorputza hortxe dauka, hantxe dago.
- G.A.** Bai, zera. Bere hegialak edo geratzen... bueno, duen bakarra izango litzateke Getxokoa, baina makinaria kenduta du. Euskal Herrian ez da geratzen makinaria duen errota bat ere ez.
- ELKAR.** Beste gauza bat, datu bitxia badago errotarien ingurukoa, ezta? Oso zera bereziak erabiltzen zituztela, holako zeinu bereziak erabiltzen zituztela, ez guk gaurko zenbakiak zeratan, batez ere, zakuetan eta marrazteko, ezta? Zenbat kilo edo adierazteko. Hori, gainera, egutegia, zuk ekarri diguzu Gerarta, eta egutegi horretan, bueno, erabili dituzte, juxtu, errotariak garai batean erabiltzen zituzten zeinu horiek, eh? Ikusten ari gara, beraz, hori 1998 edo izango da, ezta? hor ikusten ari garena? (Hala eta guztiz ere...) ... zenbakia edo?
- G.A.** Hori da. Noski, bat da makila bat, bia bi makil, hiru eta horrela aldatzen doaz, ezta? Zifrak desberdinak osatuz. Hala eta guztiz ere leku desberdinetan sistema desberdinak erabiltzen dituzte. Hau leku jakin batekoa da, ez naiz oroitzen ondo nongoa den. Baina, hori da, hau aurtengo mila (o sea, lehenengoa bata izango litzateke, gero bederatzia, hala beharko luke, ezta?). Ez, ez da horrela kontatzen. (A, ez da horrela?) Ez da horrela kontatzen. Nik neuk ere ez dakit oso ondo. Esan duzu...
- ELKAR.** Bueno horrek, amaierako horrek zortzi itxura badauka, ezta? Hiru makiltxo (hori da), gero bosta, gero besteak... bueno... mila bideratzirehun... bederatzia izan beharko luke. Eta bestea, ondokoa, bederatzia, baina ehunekoak adierazten dituena, eta agian lehenengoa milakoa, eh? Bueno, gure oraingo zeran, bai ezta? Orain pentsatzen ari garen moduan bai, baina, oso behintzat, oso-oso modu bitxia da, kontatzeko zeukatena. Zakuetan jartzen zutena, ezta?
- G.A.** Bai, noski, ze bakoitzak eramaten zuen bere alea eta xehetzen zuen errotariak. Eta errotariak horren zati bat hartzen zuen, euskaraz laka deitzen zitzaiona, gaztelaraz, makila. Nahiz eta euskaldun hitza dirudi, ba makila...
- ELKAR.** Euskaldun makila orain beste abesti bat, ezta? Bada abesti bat hor?
- G.A.** Bai, badago bai. Eta, bueno, errotaria hortaz bizi zen. Gainera, hor ipuin asko daude, ez? Historia asko dago esanez ba, errotaria lapurrak zirela, beti hartzen zutela (ospea, fama) beharra, behar zena baina... adostatutakoa baino gehiago hartzen zutela eta ikus horiek guztiak erabiltzen zituzten, ba, horrexetarako, kontuak ondo eramateko eta bakoitzak zer egin zuen eta zer ekarri zuen jakiteko.
- ELKAR.** Bueno, ikusten duzue, ezta? Artikulua... ez pentsa gero artikulua... hau liburuska izan zitekeen, baina, benetan mamitsua zeozer baldin badago, hau da, ba, mamitsua eta juxtu CAF-Elhuyar saria bigarren saria irabazi duena eta laister Elhuyar aldizkarian aterako dena, gomendagarria guztiz eta Gerarta Arotzenak, bueno, azalpen txiki bat eman digu hemen, baina Gerarta...
- G.A.** Txikia... ezin gehiago.
- ELKAR.** Aizu! Beste itsas-errotak hori erakusteko konpromezua ematen badiguzu, gustura ikusiko genuke. Izan ere,



hori da, ez, altxor bat da hor daukaguna eta.

G.A.

Bai, bai, bai. 1683. urtean eraikia izan zen. Datua hor dago, ez? jarrita, eta bueno gorabehera asko izan ditu. Duela 15 urte bilbotar batek erosi zuen eta kasualidadea, beste... aldamenean zegoen bat baino okerrago zegoen eta aldamenekoak gaur egun haurriak besterik ez da. Erorita dago, geratzen dira hor harri batzuk bata bestearen gainean, baina besterik ez. Eta berari zor diogu hori mantentzea eta... mimoz eta, bueno, kuttun-kuttun zaindu du, ezta? Eta bueno, bisita hori ere zor diogu berari.

ELKAR.

Bueno, ba, hitza ematen al diguzu? (Ba, bai. Ni prest nago bai.) Egingo diguzu gidari? (Ba, bai. Joango gara) bertara ikusiko duzue, eh? Horko koba, esan dugu, eh?

G.A.

Koba-errota ozoilo-errota edo itsas-errota ere deitzen zioten. Hiru... lau esan ditudala uste dut, laugarrena ahaztuta dut, orain ezin esan...

ELKAR.

Gerartak ez dakit nola egiten duen, baina beti ditu hiru edo lau izen gauza guztietarako. Gerarta Arotzena. (Bai). Ba, zorionak sari horrengatik, mila esker etortzeagatik eta hitza hartua dago, eh? Zu non bizi zara? Baserrian? Kalean? Adosatu batean, txalet batean?

G.A.

Herri txiki bateko kalean. (Ah, bai?). Aizarnazabalen bizi naiz.

ELKAR.

Ba, orain moda berria dago. Gu ez gara bizi baserrian.



ATAZA: JAKIRIK ONENA, EZAGUTZEN DENA

1. TALO-ZOPAK 180'

Helburuak:

- Testu idatziaren plangintza egitea, ideiak antolatzeko ibilbidearen teknikaz baliatuz.
- Ideiak parrafotan banatzen trebatzea.
- Azalpeneko testuetan adibideek, definizioek, birformulazioek, ...duten funtzioaz ohartzea.
- Landutakoez baliatuz, azalpeneko testu labur bat sortzea.

Zertan den:

- Ataza honen xedea ikasleek ikaskideei jaki bat aurkezteko fitxa bat egitea da, zerealekin egindako plater edo jaki baten fitxa, hain zuzen. Horretarako, lehenbizi eginkizuna agertuko zaie ikasleei: argazkia jarriz eta testua idatziz fitxa egingo dutela; ondoren, eredu bat izango dute, ibilbidea aztertu eta parrafoen banaketaz hausnar dezaten; hurrengo urratsean, azalpeneko testuen ezaugarri bati erreparatu beharko diote. Amaitzeko, fitxaren testua sortu beharko dute.

! Oharra: Ataza osagarri honi zeure ikasleentzat interesgarria baderitzozu bi aukera dituzu, ikasleek etxean bakarka egitea edota guk hobesten dugun aukera: ikasgelan binaka edo taldeka egitea. Horrela eginez gero, idazmena lantzeaz gain ikasleek hitz egiteko aukera izango dute eta probetxu gehiago aterako diote atazari.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: testuaren edukia aurreikusi eta ereduaz aztertu

- Ikasleei zeregina aurkeztuko zaie: zerealekin zerikusia duen jaki bat azalduko duen fitxa egitea. Fitxan jakiaren argazkia jarri eta jakiaren berri emango dute, beste ikaskideek plater edo jaki hori ezagutu dezaten. (5')
 - Ikasleek prestatu behar duten fitxako testuan zein puntu ager daitezkeen pentsatu eta beren fitxan idatzi beharko dituzte.
 - Horretarako, eredu izan daitezkeen testu bat eta testu horren ibilbidea aztertuko dute ikasleek. Talo-zopak izango da testu hori; irakurri eta ibilbidea ikusi ostean, bururatu zaizkien iradokizun eta ideia berriei testua idazteko ideien zerrenda osatzen ahaleginduko dira. (15')
 - Amaitzeko, ikasleak taldeka jarriko dira eta jasotako puntuen berri emango diote elkarri. (15')
 - Talo-zopak testua berriro ere aztertuko dute ikasleek, baina oraingo honetan parrafoan banatu beharko dute. Hasieran bakarkako lana izango da eta gero taldeka arazoitu eta eztabaidatzekoa. (15')
- Irakasleak feedback bakarra eman nahi badu, informazio hau izango du: testua modu askotan bana badaiteke ere, hona hemen egileak berak egindako antolamendua. (15')

ZUZENKETA-ORRIA

Talo-zopak (parrafoen banaketa)

Talo-zopak dira aurkeztu nahi dugun gosaria. Beharbada gaur arte inoiz ez duzue entzun ere egin, baina Euskal Herrian aspaldiko jakia duzue hau. Talo-zopak egitea ez da batere lan zaila, gainera osagai bi baino ez dira behar: taloa egiteko artirina eta esnea. Zailtasun bakarra taloa egitean aurkituko dugu, antzinako sutegi edo txapa behar dugulako, edota talo-burdina; hala ere, azoka askotan aurki dezakegu taloa. Taloari esne bero-beroa gehitu eta jateko prest izango dugu. Jakina, gozozalea bazara, azukrea edo ezta gaineratzen ahal diozu. Gaur egun oso jende gutxik egiten ditu garai batean baserrietan egiten ziren moduko lan gogorak; horregatik, talo-zopak gosari aproposa izango da makal samar gabiltzanerako. Beraz, urdailerako apur bat astuna izan arren, lan gogorra egin behar baduzu, ez izan zalantzarik, berehala prestatu eta jan. Gainera, azken ikerketen arabera, afrodisiakoa ere ba omen da.

- Ikasle bakoitzak talo-zopak testuaren bigarren bertsioa aztertuko du eta hasierako testuarekin dauden desberdintasunak azpimarratu eta bere fitxan jasoko ditu. (5')

ZUZENKETA-ORRIA (bigarren bertsioak dituen testu-zati berriak)

- * , zehatzagoak izateko, hemengo baserrietan duela gutxira arte egunero-egunero jan dituzte talo-zopak gosaltzeko.
- * , edo artotik ateratzen den irina...
- * , edota... taloa egiteko berezko tresna bat:...
- * , beste batzuen artean Santo Tomaseko azokan...
- * , irakiten badago, hobe,
- * , edo bestela esanda, indarge, energia gutxirekin, nekatuta, depresioak jota...

- Jaso dituzten esaldi horiek funtzio bat dute testuan. Ikasleek euren fitxan ematen zaizkien funtzioen artetik aukera egin beharko dute. Ariketa hau taldeka egitea komeni da, funtzio horien gaineko hausnarketa egiteko. (10')

ZUZENKETA-ORRIA (esaldien funtzioak)

-Pistak edo argibideak ematen dituzte	X
-Ideia batzuk beste batzuekin lotzen dituzte	
-Adibideak ematen dituzte	X
-Gauzak beste modu batean esaten (birformulatzan) dituzte	X
-Puntu bat zehazten dute	X
-Kohesioa ematen diote testuari, esaldiak lotzen baitituzte	
-Esaldiak amaitzen dituzte	
-Definizioak ematen dituzte	X

Ataza: fitxak taldeka egin

- Klasea taldetan banatu beharko du irakasleak (2, 3 edo 4 ikasleko taldeak) eta, talde bakoitzari fitxa bat banatu ostean, fitxan jarriko duten jakia zein izango den erabakitzeko eskatuko die taldeei. (5')
- Ondoren, talde bakoitzak fitxa horretako testuaren ibilbidea egin beharko du, emandako eskema-diagrama beteaz. (10-15')
- Amaitzeko, fitxaren testua egingo dute ikasleek, taldeka prestatuko dute testua eta, irakaslearen feedbackaren ostean, ikaskideei pasako diete, hauek irakur dezaten. (30')

Feedbacka

- Testuak fitxan idatzi aurretik emango du feedbacka irakasleak. Besteak beste zuzentasuna, koherentzia, kohesioa eta azalpen-testuetan fokalizatu diren formak hartuko ditu kontuan irakasleak.
- Feedbacka bukatutakoan, ikasleek fitxak prestatuko dituzte: argazkia jarri eta zuzendutako testuak idatziko dituzte. Ondoren, fitxak euren artean trukatuko dituzte. (20')

Atazaostea

- Ikasleek egindako fitxa guztiak artxidadore batean bilduko dituzte, "sukaldaritza" bilduma moduko bat osatuz. Bildumaren izenburua asmatu, fitxak sailkatu, aurkibidea egin eta artxidadorearen azala diseinatuko dute. (30')

IKASLEAREN FITXA

Ataza osagarri honetan, gustukoa duzun jaki edo platera aurkeztuko diezu zure klaseko ikaskideei fitxa baten bidez.

Zer motatako jakia den ikusteko, fitxa horretan, ahal baduzu behintzat, argazkia jarri eta testu bat idatziko duzu.

1

IDATZIAURRETIK


- Ataza honetan, zerealekin egindako plater edo jaki bat aurkeztu beharko duzu fitxa batean. Zertarako? Bada, gure kultura, gure gastronomia, gure ohiturak edo gure gustu pertsonalaren adierazgarri izan dadin. Plater edo jaki hori fitxa batean azaldu eta ikaskideei pasako diezu, irakur dezaten. Pentsa ezazu une batez zure ikaskideei interesgarria irudituko zaien eta zerealekin zerikusia duen jaki edo plater bat eta idatz ezazu hemen azpian.



- Jaki hori aurkezteko prestatu behar duzun testuak zenbait puntu ukitu beharko ditu, hau da, ibilbide bat egin beharko du. Azpian zerrenda labur bat duzu adibide gisa. Pentsa itzazu testuan aipa daitezkeen horrelako beste atal batzuk.

- * Platearen aurkezpen edo proposamena
- * Kokapen eta bilakaera historiko/kulturala
- * Ezaugarri orokorrak:
 - prestaketa arina/denbora eskatzen du
 - merkea/garestia
 - denon gustukoa/batzuei baino ez zaie gustatzen
 - ...
- * Noiz jateko aproposa
- *

- Azter dezagun orain adibide bat:




Talo-zopak

Talo-zopak dira aurkeztu nahi dugun gosaria. Beharbada gaur arte inoiz ez duzue entzun ere egin, baina Euskal Herrian aspaldiko jakia duzue hau. Talo-zopak egitea ez da batere lan zaila, gainera osagai bi baino ez dira behar: taloa egiteko artirina eta esnea. Zailtasun bakarra taloa egitean aurkituko dugu, antzinako sutegi edo txapa behar dugulako, edota talo-burdina; hala ere, azoka askotan aurki dezakegu taloa. Taloari esne bero-beroa gehitu eta jateko prest izango dugu. Jakina, gozozalea bazara, azukrea edo eztia gaineratzen ahal diozu. Gaur egun oso jende gutxi egiten ditu garai batean baserrietan egiten ziren moduko lan gogorrak; horregatik, talo-zopena gosari aproposa izango da makal samar gabiltzanerako. Beraz, urdailerako apur bat astuna izan arren, lan gogorra egin behar baduzu, ez izan zalantzarik; berehala prestatu eta jan. Gainera, azken ikerketen arabera, afrodisiakoa ere ba omen da.

- Irakurri eta gero ikusiko duzu testu horrek ondorengo ibilbide horri jarraitu diola:



- Aurreko testua eta ibilbidea ikusi eta gero, atal batzuk kendu edo atal gehiago jarri nahi duzu zeure fitxan?. Hala izanez gero, jo ezazu aurreko zerrendara eta erabaki zeure idazlanean sartu nahi dituzun atalak.
- Testu luze samarra idazten dugunean, hau da, testu horrek ideia edo puntu bat baino gehiago duenean, normalean parrafotan banatzen dugu geure testu hori. Parrafotan banatzean, besteak beste, honako bi arauak izaten ditugu kontuan:
 - Normalean, parrafo batek ideia bat baino ez du adieraziko.
 - Ideiak oso labur edo eskematikoak direnean, ordea, ideia bat baino gehiago ere izan dezake parrafoak.
 Iradokizun horiek kontuan izanda, bana ezazu parrafotan Talo-zopak testua.



- Talo-zopak testua aldatu egin dugu orain. Azter ezazu, ba, hurrengo testua.

Talo-zopak

Talo-zopak dira aurkeztu nahi dugun gosaria. Beharbada gaur arte inoiz ez duzue entzun ere egin, baina Euskal Herrian aspaldiko jakia duzue hau, zehatzagoak izateko, hemengo baserrietan duela gutxira arte egunero-egunero jan dituzte talo-zopak gosaltzeko. Talo-zopak egitea ez da batere lan zaila, gainera osagai bi baino ez dira behar: taloa egiteko artirina, edo artotik ateratzen den irina, eta esnea. Zailtasun bakarra taloa egitean aurkituko dugu, antzinako sutegi edo txapa behar dugulako, edota taloa egiteko berezko tresna bat: talo-burdina; hala ere, azoka askotan, beste batzuen artean San Tomasetako azokan, aurki dezakegu taloa. Taloi esne bero-beroa gehitu, irakiten badago hobe, eta jateko prest izango dugu. Jakina, gozozalea bazara, azukrea edo ezitia gaineratzen ahal diozu. Gaur egun oso jende gutxik egiten ditu garai batean baserrietan egiten ziren moduko lan gogorak; horregatik, talo-zopena gosari aproposa izango da makal samar gabiltzanerako, edo bestela esanda, indarge, energia gutxirekin, nekatuta, depresioak jota, ... Beraz, urdailerako apur bat astuna izan arren, lan gogorra egin behar baduzu, ez izan zalantzarik; berehala prestatu eta jan. Gainera, azken ikerketen arabera, afrodisiakoa ere ba omen da.



■ Aldera ezazu aurreko testuarekin eta, azpimarratu ondoren, jaso itzazu agertzen diren testu-zati berriak hemen azpian.

- ...zehatzagoak izateko, hemengo baserrietan duela gutxira arte egunero-egunero hartu dituzte talo-zopak gosaltzeko.

-
-
-
-


■ Azpian dituzun funtzioen artean, zeintzuk dira elementu horiek betetzen dituztenak? Jar ezazu X bat kasu horietan

- Pistak edo argibideak ematen dituzte
- Ideia batzuk beste batzuekin lotzen dituzte
- Adibideak ematen dituzte
- Gauzak beste modu batean esaten (birformulatzen) dituzte
- Puntu bat zehazten dute
- Kohesioa ematen diote testuari, esaldiak lotzen baitituzte
- Esaldiak amaitzen dituzte
- Definizioak ematen dituzte


IDATZIBITARTEAN

Ikusi dugu plater edo jaki bat nola aurkez daitekeen; bestetik, ibilbidea edo eskema ere aztertu dugu. Orain, gauza bera egin beharko duzu.

- Erabaki ezazu zein plater edo jaki azaldu nahi duzun zeure fitxan.
- Testuaren ibilbidea ere zehaztu behar duzu. Horretarako da ondorengo eskema.



- Idatz ezazue orain fitxaren testua.



IDATZIONDOREN

- Irakasleak testuak zuzendu ondoren, fitxak egingo dituzue: argazkia jarri eta testu zuzendua idatziko duzue.
- Fitxak elkar trukatu eta ikaskideek idatzitakoak irakurri.
- Zer moduz atera dira? Merezi al du fitxak gordetzea? Hala bada, “sukaldaritza” bilduma moduko bat osatuko duzue, egindako fitxa guztiak artxibadore batean sartuz. Hona hemen adibidez egin dezakezuena: bildumaren izenburua asmatu, fitxak sailkatu (zuek erabaki zein irizpideren arabera), aurkibidea egin, artxibadorearen azala diseinatu...



ATAZA: ELIKAGAIAK ETA ZEREALEN ABANTAILAK

2. ALEDUN, LABORE, ZITU EDO ZEREALAK 180'

Helburuak:

- Gaiaren aurrezagutzak ulermenean duen garrantziaz ohartzea.
- Ikasleak klasetik kanpoko lanera bultzatzea, autonomia sustatuz.

Zertan den:

- Ikasleei teknika bat proposatzen zaie beren gisan euskara lantzeko, gai/berri/nobela baten bi bertsio ezberdin (idatzizkoa eta ikus-entzunezkoa) erabiliz.

Materiala:

1. Arotzena, G.. 1988 Aledun, labore, zitu edo zerealak. In Elhuyar, 128: 32-39.orr.
2. Bertatik bertara saioa. Andoni Aizpuru eta Gerarta Arotzena. ETB.
3. Bertatik bertara saioaren transkripzioa

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: gaiari buruzko aurreikuspenak egin eta hiztegi berria ziurtatu

- Ikasleek, galdetegiari erantzun ondoren, erabakiko dute ea zertan diren hobeak: irakurtzen edo entzuten.
- Entzule hobeak izatera, Bertatik bertara saioarekin hasiko dira lanean.
Irakurle hobeak izanez gero, berriz, Elhuyarreko artikuluekin hasiko dira gainirakurketa eginez eta interesatzen zaizkien atalak zehatzago irakurriz.
Etapan honetan, menderatzen duten trebetasunaren bitartez ikasleek jakinmina piztu eta gutxieneko ezagutza lortu beharko lukete gaien nondik-norakoari buruzko aurreikuspenak egin ahal izateko eta oinarritzko hiztegia ziurtatzeko.

! Oharra: Komeni da ikaslearen fitxako lehenengo bi puntuak ikasgelan egitea irakaslearen laguntzarekin.

Ataza: gaiari buruzko informazio interesgarria lortu landu nahi duten trebetasunaren bidez

- Behin ezagutza hori lortuz gero, lantzeko aukeratu duten trebetasunaren bidez gaiari buruzko informazioa lortzen jarraituko dute, baina eguneroko bizitzan euren interesen arabera egingo luketen irakurketa/entzuketa eginez, hau da modu estentsiboan eta hiztegia erabili gabe.

! Oharra: ikaslearen fitxan ataza entzumena lantzeko proposatzen bada ere, ataza bera, hau da, proposatutako galderak, irakurrita erantzuteko modukoak dira.

Atazaren feedbacka

- Landutako trebetasuna entzumena izan bada, bi aukera dute ikasleek ulertu dutela egiaztatzeko:
 - • Elhuyarreko artikulua osorik irakurtzea, informazioa kontrastatzeko.
 - • Irakasleak transkripzioa ematea, azter dezaten.
- Landutako trebetasuna irakurmena izan bada, eta ulermenean arazoren bat izanez gero, hiru aukera dute ikasleek:
 - • hiztegian begiratzea
 - • irakasleari galdetzea
 - • ETBko elkarrizketa ikustea



Teknikaren feedbacka

- Ikasleei teknika honen bidez erakutsi nahi zaie askotan euskaraz ez dutela ulertzen edo kostatzen zaiela ulertzea, gaiaren aurrezagutzarik ez daukatelako.
- Arazoa gainditzeko modu bat hemen proposatutakoa da: ikasleek gaiaren nondik norakoak jakin ditzatela hobeto menderatzen duten trebetasunaren bidez. Horrela, ideia nagusiak eta gutxieneko hiztegia aurreratzeko gai izango dira eta, ondorioz, hobeto ulertzeko modua izango dute, hobetu nahi duten trebetasuna lantzen dutenean.

Atazaostea

- Ikasleek horrelako ariketa gehiago nahi izanez gero, hona hemen proposamen batzuk:

A) NOBELA ETA FILMA

1. Ehun metro

- Saizarbitoria, R. 1985 Ehun metro. Erein (88 or.)
- Ungria, A. Ehun metro. Euskadiko Filmategia. (54')

2. Hamaseigarrenean aidanez

- Lertxundi, A. 1983 Hamaseigarrenean aidanez. Erein.
- Lertxundi, A. Hamaseigarrenean aidanez. Euskadiko Filmategia. (58')

3. Ke arteko egunak

- Ezeiza, A. 1990 Ke arteko egunak. Elkar
- Ezeiza, A. 1991 Ke arteko egunak. Bertan Filmak: Trenbideko Filmak (110')

B) IRRATI-NOBELA ETA GIDOIA

ATXAGA, B. 1990: Antzoki iluna. HABE. (liburuskak eta kaseteak)

Irrati-nobela batzuk aipatzekotan:

- Pelotari zaharraren ajeak. (2 atal)
- Errugabeko txoriak ere erortzen dira sarean. (4 atal)
- Su-koloreko ilea zuen emakumea. (4 atal)
- Emakume bakartia. (6 atal)
- Amaren maitasuna bezalakorik ez duzu inon aurkituko. (8 atal)

C) ETBKO ALBISTEAK ETA EUSKALDUNON EGUNKARIAKOAK

ETBko albistegiak grabatu eta hurrengo eguneko egunkarian azaltzen diren albisteekin alderatu.



IKASLEAREN FITXA

Zerealei buruz gehiago jakin nahi duzu? Euskara zeure aldetik lantzeko teknika berri bat proposatuko dizugu, G. Arotzenak zerealei buruz Elhuyar-en argitaratutako artikulua * eta ETB-n egin zioten elkarrizketa ** lantzeko modua.

1. ZER ZARA IRAKURLE ALA ENTZULE HOBEA?

- Eguneroko bizitzan, informazioa lortzeko, zer duzu nahiago: entzutea ala irakurtzea?

.....

- Ikasterakoan nola ulertzen duzu hobeto, irakasleari entzunda ala liburuan irakurrita?

.....

- Euskaraz noiz ulertzen duzu gehiago, zerbait entzutean ala irakurtzean?

.....

- Zure iritziz, zeure euskara hobetzeko, zer landu beharko zenuke, zeure entzumena ala irakurmena?

.....

2. Zerealen gaia lantzeko, zeure ustez ulertzen gehiago lagunduko dizun trebetasunetik abiatuko zara.

Adibidez, eman dezagun irakurle hobe zarena entzule baino, eta, ondorioz, zeure entzumena hobetu nahi duzula.

Orduan, irakasleari Elhuyarreko artikulua eskatu.

A) IKUS-ENTZUN AURRETIK

ETBn G. Arotzenarekin eginiko elkarrizketa gai honi buruzkoa dela kontuan izanda, bigarren irakurketan erreparaiezu honako bi galdera hauei:

- artikuluan azaltzen diren ideietatik zeintzuk azalduko dira ETBko elkarrizketan?
- artikuluan azaltzen diren hitz ezezagunen artean, zeintzuk izango zaizkizu beharrezkoak elkarrizketa ulertzeko?

B) IKUS-ENTZUN BITARTEAN

Eskatu irakasleari bideo-zinta eta, elkarrizketa ikus-entzuterakoan, ez saiatu dena hitzez hitz ulertzen.

Hemen dituzu galdera batzuk bideoa ikus-entzun bitartean erantzuteko modukoak. Hauetako bat aukeratu edota saiatu ahalik eta gehienera erantzuten.

- Aurreikusitako hitzak ere azaldu al dira elkarrizketan?

.....

- Aurreikusitako hitzak ere azaldu al dira?

.....


- Aipatu bideoa ikusi aurretik ezagutzen ez zenituen bi gauza edo ideia, elkarrizketa honi esker ikasi dituzunak.

1.

2.

- Aipatu ideia interesgarriren bat zeure ikaskide edo etxeke norbaiti kontatzeko modukoa.

.....



* Arotzena, G. 1998 Aledun, labore, zitu edo zerealak. In Elhuyar, 128: 32-39. orr.

** Bertatik bertara saioa. Andoni Aizpuru eta Gerarta Arotzena elkarrizketan. ETB. 98.01.29



C) IKUS-ENTZUN ONDOREN

Zeure ulermena egiaztatu nahi baduzu, bi aukera dituzu:

- a) Elhuyar aldizkariko artikulua zehatzago irakurri, erabat ulertu ez duzun informazioa osatzeko.
- b) Eskatu irakasleari elkarrizketaren transkripzioa eta azter itzazu interesatzen zaizkizun pasarteak.

3. Alderantziz gertatuz gero eta irakurle baino entzule hobea baldin zara, bideo-pasartearekin hasiko zara lan egiten eta gaiaren nondik norakoak ezagutzen dituzunean, artikulua irakurriko duzu.

Eguneroko bizitzan behin baino gehiagotan aurkituko dituzu bi bertasio ezberdinak: idatzizkoa eta ikus-entzunezkoa; adibidez, telebistan eta egunkarian; gai baten inguruko erreportajea telebistan eta aldizkari batean; nobela bat eta honen bertasio zinematografikoa.

Aurkeztu dizugun teknikak aukera ematen dizu hobetu nahi duzun trebetasuna modu egokian lantzeko.

Askotan ez baitugu ulertzen, gai baten inguruan aurreko ezagutzarik ez dugulako. Teknika honen bidez gaiaren inguruko gutxieneko ezagutza beste trebetasun baten bidez lortzen baduzu, hobeto ulertuko duzu.

Horrelako ariketa gehiago egin nahi baduzu, eskatu irakasleari.



ATAZA: ELIKAGAIAK ETA ZEREALEN ABANTAILAK

3. LURREAN ARI 90'

Helburuak:

- Testuinguruan eta aurreko ezagutzan oinarrituz, esanahiaren inguruko hipotesiak egitea.
- Definizioak irakurri, hipotesiak egiaztatzea.
- Definizio laburrak ematea.

Zertan den:

- Ataza honek gaia gurera ekartzea du helburu, ikasleei interesatzen bazaie, batetik, euskal nekazaritzaren ikuspegi orokorra emanaz eta, bestetik, hilabeteen izenen eta nekazaritzaren arteko lotura estua agerian utziz. Bestalde, eta ulermena areagotzeko asmotan, xehetasun batzuk ulertzeko oztopo izan daitezkeen berben definizioetara jo dugu, esanahia argi gera dadin.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: gainetikako irakurketa

- Esan ikasleei testua gainetik irakurtzeko, gaiaren nondik norakoez jabe daitezzen. (5')

Ataza: irakurketa xehea egin eta lanabes bakoitza zein den asmatu

- Ondoren, ikasleek 19tik 22ra bitarteko lerroei erreparatuko diete. Eta eskualde hezeari eta lehorrari dagokion landaretza mapan kokatuko dute. (5')
- Jarrainan, 23tik 29ra bitarteko zatia irakurri eta, irudiak lagun, lanabes bakoitza zein den asmatzen saiatuko dira. Gero, lanabesok erabileraren arabera (prozesua) ordenatuko dituzte. Horrela, grafikoki ikusiko dute egindako hipotesiak zuzenak diren. (10')
- Albokoarekin erkatu eta adostu ditzatela. (5')
- Oraingoan, eta irudiak ondoan dituztela, lanabeson (eta beste irudi bako hitz batzuen) definizioak irakurri eta irudiekin lotuko dituzte, aurreko puntuak egindako hipotesiak egiaztatuz edo beste hipotesi batzuk eginez. (10')
- Ondokoarekin jar daitezela, egindakoa erkatzeko eta adosteko. (5')

Feedbacka

- Bukatzeko, eman ikasleei erantzun zuzenak. Eta galdetu ea definizioek lagundu dieten ulertzen, ondo ulertu dituzten, zailak iruditu zaizkien... (10')

ZUZENKETA-ORRIA

A	B	C	D	E	F	G	H	I
7	6	8	1	9	2	5	4	3



2

Atazaurrea: girotzea

- Esaiezu ikasleei bakarka euskal hilabeteen izenak irakurtzeko, bai estandarrekoak, bai euskalkietakoak, eta horien arteko aldeei erreparatzeko. (5')

Ataza: hizkuntz testuinguruari erreparatuz, hilabete batzuen esanahia igarri

- Testuan hilabeteen izenen inguruan irakurritakoa kontuan hartuta, bertan agertu ez direnen esanahia ematen saiatuko dira, bakarka edo binaka. (10')

Feedbacka

- Hemen azpian dituzu erantzun posible batzuk, feedbacka emateko erabil ditzakezunak.

ZUZENKETA-ORRIA	
Urtarrila	<ul style="list-style-type: none">• beltzila = beltzaren hilabetea• ilbeltza = ilargi beltza edo hil beltza• izotzila = izotzaren ilargia edo hilabetea
Otsaila	<ul style="list-style-type: none">• otsaila = otsoen hilabetea/ilargia; hotzen ilargia/hila• zezeila = zezenen ilargia/hilabetea
Martxo	<ul style="list-style-type: none">• epaila = ebaki hila/ilargia (zuhaitzen inausketa, mozketaren garaia)
Abendua	<ul style="list-style-type: none">• neguila = neguaren ilargia/hilabetea• lotazila = hazia ernatzen den hilabetea

Gramatika eta diskurtsoa: hitzen osaketa

- Ondoren, esan ikasleei hitzen osaketari erreparatzeko eta zeintzuk diren garaia, denbora adierazteko hitzak, baita hiruzpalau adibide idazteko ere. (5')

Atazaostea: hilabeteen izenak gaurkotu

- Azkenik, olgeta antzekoa da proposatzen duguna: hilabeteen izenak gaurko bizimoduari egokitzea. Ikasleek, binaka jarrita, hilabete guztien izenak gaurkotuko dituzte. Txapelketa antzera antola dezakezu, zeintzuk diren irudimen handienekoak edo zeintzuk dauden errealitateari lotuen... (20')



IKASLEAREN FITXA

1

- Irakur ezazu ondoko testua gainetik, gaiaren nondik norakoez jabetzeko.


LURREAN ARI

Artzaingoa bezala nekazaritza ere Neolitikoan heldu zen gure Herrira, duela 5.000 urte inguru. Hasiera batean lautadetan zabaldu zen ogibide berria, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko lautadetakoa lurrak egokiagoak baitziren lantzeko.

- 5 Gainontzeko lurretan, oso menditsuak izaki, artzaingoa bilakatu zen bizibide nagusi. Geroago, baserriak eta sortzen hasi ziren garaiak, arruntena nekazaritza abeltzaingoarekin tartekatzea izan zen. Baserriek, nekazaritzarako lurrez gain, hiruzpalau behi eta zenbait zaldi, ardi, txerri eta oilo izaten zituzten, idi pareak ahaztu gabe. Garai horretan, denbora sailkatzeko era nekazaritzako lanei estu-estu lotuta zegoen,
- 10 zenbait hilabeteren izenetan ikus daitezkeen bezala: Nekazariaren urtea **Azaroan** -hazi aroa- hasten zen, haziak ereiteko garaiak, alegia. Apirilak zenbait euskalkitan **Jorraila** izena hartzen du, hots, alorrak jorrazteko hilabetea; Maiatzak **Ostoila** edo **Orrila**, hostoaren hilabetea. Ekainari **Garagarrila** -garagarraren hilabetea- deitzen zaio Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait tokitan.
- 15 **Uztailak** uzta biltzeko hilabetea dela ongi adierazten du; zenbait lekutan **Garila** esaten diote, alegia, garaiaren hilabetea. Abuztuari **Agorrila** ere esaten zaio leku batzuetan, hots, agorraren edo lehorraren hilabetea. **Iraila** iratzearen hilabetea da eta **Urria/Urrila** hurrak biltzekoa.
- 20 Lurretik ateratzen diren produktuen artean artoa, arbia, belarra (abereentzat), barazkiak eta sagarrak ziren aipagarrienak eskualde hezean, Kantauri itsasora begira dagoen lurraldean. Beste aldean, Mediterraneorantz doazen ibaien eremuan, garia zen gehien landatzen zena, mahatsarekin batera. Lanak, esan bezala, Azaroan hasten ziren; hilabete horretan lurrak iraultzen ziren **laiaz** edo **goldez**. Gero haziak erein egin behar zen. Haziak ongo sartuta gera zitezkeen, **area** izeneko lanabesa erabiltzen zuten. Sokilak txiki-txiki eginda uzteko, berriz, **narra** edo **hesia** erabiltzen zen. Otsailean soroak ongarritzen ziren zimaurrea zabalduz. Udaberri aldean jorrazteko garaiak izaten zen. Lan horretarako aitzurrak erabiltzen ziren. Azkenean, urte guztiko lanaren fruitua biltzeko aroa zetorren, uzta-sasoia alegia. Uztarako erabiltzen ziren lanabesen artean **sega** eta **igitaia** ditugu aipagarrienak.





Etxegoien, J.C. (Xamar) 1992 *Orhipean*.
Pamiela (moldatua)

- Erreparaiezu 19tik 22ra bitarteko lerroei eta koka ezazu beheko mapan eskualde hezeari eta lehorrari dagokion landaretza.



IKASLEAREN FITXA

- Orain, irakurri 23tik 29ra bitarteko lerroak eta ea asmatzen dituzun, testuinguruaren laguntzaz, hor aipatzen diren lanabesak zeintzuk diren. Gero saia zaitez erabileraren arabera ordenatzen, hau da, modu kronologikoan, (1, 2, 3...); adibidez, belarra jaso aurretik, moztu egin behar da.



- Erka ezazu egindakoa ondokoarekin.

■ Hona hemen, aurreko puntuan aipatutako lanabesak eta beste zenbait kontzeptu euren definizioekin.

Saia zaituzte, batetik, irudiak eta hitzak definizioekin lotzen eta, bestetik, konproba ezazu aurreko puntukoak ondo asmatu duzun.

<p>1.</p> 	<p>2.</p> 	<p>a) narra edo lera. Gurpilik gabeko gurdi-modukoa, eta bi funtziotarako erabiltzen dena: bata, bide estu eta aldapatsuetan gurdiaren ordean gauza pisutsuak garraiatzeko eta, bestea, gainean harriak edo zama jarri, goldatu den lurreko mokorrak apurtzeko eta lurra berdintzeko.</p>
<p>3.</p> 	<p>4.</p> 	<p>b) igitaia. Uzta edo belarra ebakitzeko lanabesa, gako-formakoa eta kirten edo eskutoki labur bat duena.</p>
<p>5.</p> 	<p>6.</p> 	<p>c) goldea. Lurra lantzeko lanabesa, abereak edo traktoreak tiratzen duena eta nekazariak atzetik gidatzen duena. Lurrean ildoak egiten ditu.</p>
<p>7.</p> 	<p>8.</p> 	<p>d) iratzeta. Ugalketa-organoak ezkutuan dituen landarea, hodi itxurako hosto gelaxodunak ditu. Bereziki baso heze eta epel edo beroetan hazten dira.</p>
<p>9.</p> 	<p>9.</p> 	<p>e) laia. Bi hortz dituen lanabesa, baserrietan lurra iraultzeko erabiltzen zena.</p>
<p>8.</p> 	<p>9.</p> 	<p>f) aitzurra. Lurra lantzeko eta harrotzeko lanabesa, gehienetan zurezko kirten batek eta burdinazko pieza zapal batek osatua.</p>
		<p>g) area. Hortz asko dituen lanabesa. Goldatu ondoren, lurra hautsi eta berdintzeko erabiltzen dena, ereitean haziak ondo sartuta gera daitezten.</p>
		<p>h) sega. Belarra eta laboreak ia errotik ebakitzeko lanabesa. Bi zatik osatua dena: bi eskutoki dituen kirten luzea eta muturrean burdinazko pieza luze eta okertua.</p>
		<p>i) hurra. Hurritzaren fruitua, biribil antzekoa, lehorra eta zabalgaitza dena. Oso elikagai ona, eta gozogintzan asko erabiltzen dena.</p>



- Jar zaitetz lehengo ikaskidearekin eta erkatu.
- Azkenik, zera egin dezakezu: zuretzat interesgarrien edo erabilgarrien diren hitzak A atazan proposatutako hiztegi-ariketan txertatu.

2

- Gogora dezagun euskal egutegia eta 1. ariketako testuak berorretaz dioena: “Garai horretan, denbora sailkatzeko era nekazaritzako lanei estu-estu lotuta zegoen, zenbait hilabeteren izenetan ikus daitekeen bezala”. Gaur erabiltzen dugun egutegi estandarrean, jatorri latinooa (martxoa, apirila, maiatza, abuztua) edo kristaua (abendua) dutenak ere baditugu. Baina euskalkietara jotzen badugu, ikusten dugu hilabete guztiek dutela baserri munduarekin zerikusia. Irakur ezazu beheko taula:

EUSKAL EGUTEGIA	
Estandarra	Zenbait euskalkitan
Urtarrila	beltzila, ilbeltza, ilbaltza, izotzilla, ...
Otsaila	zezeila, ...
Martxoa	epaila, ...
Apirila	jorraila, opaila, abereila, ...
Maiatza	ostoila, orrila, ostaroa, loraila, ...
Ekaina	garagarrila, garagarzaroa, errearoa, ...
Uztaila	garilla, ...
Abuztua	agorrila, dagonila, garoila, ...
Iraila	urrila, bildila, ...
Urria	azila, hazila, ...
Azaroa	neguila, lotazila, ...
Abendua	

- Saia zaitetz, ondokoarekin batera, irakurgaian ikusi ez ditugun hilabeteen (urtarrila, otsaila, martxoa, abendua) esanahia ematen.

..... :

..... :

..... :

..... :



- Orain, formari erreparatuko diogu. Begiratu euskal jatorriko hilabetei. Zenbat zati dauzkate? Zeintzuk dira garaia edo denbora adierazten dutenak? Idatz itzazu hiruzpalau adibide.

..... = +


..... = +

..... = +

..... = +

- Ikusi dugu hilabeteen izenen eta lehengo bizimoduaren arteko lotura estua. Bukatzeko, zera proposatzen dizugu: hilabeteen izenak asmatzea, gaur egungo bizimoduari egokituz. Esaterako,

ekaina ➡ azterketaroa = azterketak egiteko garaia



Urtarrila ➡	
Otsaila ➡	
Martxo ➡	
Apirila ➡	
Maiatza ➡	
Ekaina ➡	
Uztaila ➡	
Abuztua ➡	
Iraila ➡	
Urria ➡	
Azaroa ➡	
Abendua ➡	



Eskuetan daukazu liburuska HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) garatzeko sustatu duen ikasmaterialari dagokio.

Kurrikulu berri honen arabera, euskalduntzeko prozesua lau mailatan banatzen da:

1. maila (aurreneko 6 urratsak gutxi gorabehera, eta bi zatitan banatua: 1 A eta 1 B (4. ,5. eta 6. urratsak); 2. Maila (7., 8. eta 9. urratsak); 3. maila (10., 11. eta 12. urratsak) eta 4. maila (EGAtik gorakoa).

HABEk materialgintza proiektuaren bidez kurrikuluaren garapenean lagun dezaketen ikastunitate-eredu batzuk aurkeztu nahi ditu.

BARRENE (1B mailarako materiala)

- Zu Tarzan... ni Jane (1. ikastunitatea)
- Ikusiz ikasi (2. ikastunitatea)
- Ederra da hitza (3. ikastunitatea)
- Eta etorkizunean, zer? (4. ikastunitatea)
- Han ere txakurrak oinutsik (5. ikastunitatea)
- Euskaldun fobiadun (6. ikastunitatea)
- Txangoa (7. ikastunitatea)
- Sineskeriak (8. ikastunitatea)

BARRENET (2. mailarako materiala)


- Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitsa (1. ikastunitatea)
- Zu nolako, etxea halako (2. ikastunitatea)
- Donostian Donosti eta gorostian gorosti (3. ikastunitatea)
- Liburuak, trukean (4. ikastunitatea)
- Euskal balea (5. ikastunitatea)
- Ogi gogorrari hagin zorrotza (6. ikastunitatea)
- Aratuste edo ihauteri: Pirata edo kortsari (7. ikastunitatea)
- Opor bereziak (8. ikastunitatea)

BARRENKALE (3. mailarako materiala)

- Neu eta neu bezalako beste piztia batzuk (1. ikastunitatea)
- Txapela buruan, ibili munduan (2. ikastunitatea)
- Lévi-Strauss eta Levi Strauss (3. ikastunitatea)
- Lau hankako lagunak (4. ikastunitatea)
- Hara eta hona (5. ikastunitatea)
- Atxagaren beldurrak (6. ikastunitatea)
- Bizi aroak (7. ikastunitatea)
- Olatua ez dator behin ere bakarrik (8. ikastunitatea)

Denek dute irakaslearentzako zein ikaslearentzako liburuska (irakaslearena eta ikaslearena). Horrez gain bideo- eta audio-zintak ere argitaratu dira.

HABE
Herriaren Aldeak eta Demokraziaren aldeko Gaiak
Ereduko Autonomiak



ISBN 84-86968-75-5



9 788486 968755